Kopla horiei esker egun horretan gertatutakoaren inguruko detaile asko jakin izan ditugu, zein partida izan zen, ze modalitateetan edo zein lekutan bes-

"*Jeu de pelota à Hernani / El juego de la pelota en Hernani*"
Santiago Arcos pintore txiletarraren obra (1897)¹.

¹ Lertxundi Galiana, Mikel. 2002. "Visión artística de Hernani. Santiago Arcos, un pintor chileno del siglo XIX en Hernani", Hernani 10, Hernani, 103 - 105 or.

teak beste. Eta nahiz eta ez dakigun zein egunetan jokatu zen, kopletan kontatzen denaren arabera azaroa inguruan izan omen zen.

Desafioa, gipuzkoarren eta nafarren artean jokatu zen eta jokatu baino bi edo hiru hilabete lehenago zein pelotarik jokatuko zuten, non, zenbatera eta beste hainbeste baldintza gehiago adostu zituzten.

Iritsi zen desafioaren eguna eta gaur egungo Tilosetan jokatu zuten lau gipuzkoarrek lau nafarren aurka desafioa 11 jokotara. Jendez gainezka zegoen ingurua, gaur egungo pasealekua dagoen tokia beteaz. Jokatu zuten plaza orain kioskoa eta zuhaitzak dauden eremua izan zen. Zuetako askok pentsatuko du joko arraroa dela hori, lau lauren kontra, 11 jokotara eta Tilosetan, paretarik gabe... Gauza da desafio hau bote luzea modalitatean jokatu zela.

Bote luzea pilotan ezagutzen dugun modalitaterik zaharrena da. Joko zuzena da, aurrez aurrekoak, parata edo hormarik gabe. Joko bakoitzak kintzeka kontatzen da, hau da, 15-0, 15-15, 30-15, 30-30, 40-30 eta jokoa. 40-40 egiten bada, ados da eta berriro markagailua 30-30 jartzen da. Talde kirola da (lau edo bost pilotari talde bakoitzeko) eta garrantzi handia du estrategiak, taktikak... Sakeak egiterako garaian, punpa plazaren albo batean kokaturik da goen botarrian egin behar da. Plazaren neurria 60 metro luze eta 15 metro zabalekoa izaten zen eta, hasiera batean, Euskal Herriko hainbat mendietan jokatzen zuten gure artzainek. Mendietan pilotosoak zeuden eta gaur egun arte horietako asko mantendu dira. Hernanin, nik dakidala, gutxienez bi pilotasoro badira oraindik mendietan. Horrek erakusten du pilotarako zaletasuna aspalditik duela Hernanik, seguraski XI-XII. mendetik.

Baina gure desafiora bueltatuta, lehenago esan bezala, horrelako ekitaldiak ekitaldi sozialak iza ten ziren. Eguna iritsi zenean, herritarrez gainezka agertu zen ingurua, zuhaitzetatik zintzilik eta guztii

jarri zirela. Jendeak oheak, beren arropa osoarekin, edredoia eta koltxoiak, jaitsi zituzten, bertakoak herrikideen alde apustu egin zutelako balio jakin baten truke, eta partidak iraun zuen bitartean gera tu ziren. Eta ez bakarrik egungo Tilosetako pasealeku an, inguruko kaleetako etxeetan ere berdina egin zuten, sotora edo portalera klase guztiak tresneriak jaitsi zituzten, apustu egiteko. Kontuan izan behar da badakigula garai horretan milaka urrezko ontzak ere apustu egiten zirela.

Esan dugun bezala, bote luzean jokatu zuten, 11 jokotara. Pilotari nafarrak baztandarrak ziren eta ez dakigu beraien izenik. Gipuzkoarren taldean, ordea, bakarrik badakigu sakalaria Erribera abizena zuen oiartzuarra zela eta errestatzailea Astigarragako probestuaren (aguazilaren) semea.

Nafarrak 10 eta 6 irabazten ari zirela, gipuzkoarrek, etsita, galduzat ematen zuten partida. Nafarrak, al-diz, irabazita zutela uste zutenez, mezulari bat bidali zuten Baztan aldera ia desafioa irabazi zutela esanez.

Baina gazte oiartzuar hark, Erribera abizenekoa, bere autoestimutik bizienean zauritua, pilota handi bat atera zuen partidaren norabidea aldatu nahian. Pilota hori zortzi ontzakoa zen (226 gramoko), hau da, gaur erabiltzen denaren bikoitza. Orduan, Astigarragako aguazilaren semea errestoan zelarik, berehala itzuli zuten markagailua. Azkenean, 11 eta 10 irabaztea lortu zuten gipuzkoarrek.

Oso deskribapen koloretsua egiten dute kopla hauek. Ordaintzeko berme gisa jarritako jantziak plazako zuhaitzetatik zintzilik ikusterakoan, ikuskizuna izango zen. Herritarren zintzotasuna ere argi azaltzen da.

Nafarren samina ere ondo azaltzen du, Hernaniko elizaren ondoan nola egiten zuten negar... Imajinatu nolakoak izango ziren baztandarren aurpegiak beren herrikideen garaipenaren berri jaso eta agurtzera irten ondoren ustezko irabazoleak buru

245

Berso oce

dira iruna puntucoac , eta beren ocasta edo tonu berecitu ederrean , chit egoqui datocenac.

*Amar jocu ta sei cendenean
Erribera-ren copeta ,
Bacirudien bacecarrela
Elurrarequin tormenta ;
Elizaraño sacatzen ceban
Zortzi onzaco pilotua.*

*Baztandarrae itzac eder
Malmotea colcoan
Erraz irabaci uste zuten
Partida galduetakoan ,
Negarra mardul egiten zuten
Hernanin Eliz-ondoan.*

*Astigarran mutil chiqui bat
Probestuaren semea
; Non bilatzen da errestorako
Bera dan baino obea ?
; Icaraturik biraldu bait du
Nafarroako gendea !*

makur, lotsez beteta jasandako porrotagatik ikus-tean. Hernaniarrak, ordea, kontentu ibiliko ziren, apustuetan nahiko diru irabazita, tabernetan eta sagardotegietan garaipena ospatuz eta pilotariak goraipatzu.

Halaxe diote koplek:

*Hamar eta sei joku zeudenean
Erriberaren kopeta
bazirudien bazekarrela
elurrarekin tormenta
elizaraino sakatzen zuen
zortzi ontzako pilotua.*

*Baztandarrak hitzak eder
malmotea kolkoan
erez irabazi uste zuten
partida galduetakoan
negarra mardul egiten zuten
Hernanin eliz ondoan.*

*Astigarragan mutil txiki bat
probestuaren semea
non bilatzen da errestorako
bera dan baino hobeak
ikaraturik bidaldu bait du
Nafarroako jendea.*

Nahiz eta koplei esker ezagutu dugun egun horretan gertatutakoa, gaur egun ez dugu bizirik aurkituko egun hora bizi izan zuen pertsonarik. Baino, 1720an erabilitako botaria oraindik Tilosetan dago. Hantxe dago, petrilaren zati bat bezala... Polita izango litza-teke horrelako gauzak "ikusi" dituen hori leku hobe batean jartzea eta izan duen garrantzia estimatzea.

Esan bezala, desafioak jai giroa sortzen zuten. Adibidez, 1758n beste pilotu desafio baten inguruau antolatu ziren ere beste ikuskizun batzuk. Horien artean idi proba eta zaldi proba, besteak beste. Baino zerbait gertatu zen.




1720an erabilitako botaria oraindik Tilosetan dago,
Izpizua kalearen aldeko pretilean.

Batzar Nagusietatik, Hernaniko alkateari ofizialki zuzendu zi-tzaion ohartarazpen bat azalduaz Batzarretako dekretu baten bitartez idi proban eta zaldi proban debekatzen zela apustu egitea. Bete al zuen Alkateak agindua? Ez. Seguraski, Batzar Nagusietatik jarritako zigorra ez zen nolanahikoa izango...

04.

LATSEKO PRODUKTU KIMIKOEN FABRIKA

Asier Agirresarobe Azkue



Sarrera

Aitzarenak, Jaime Puig, Hijos de Jaime Puig, Latseko fabrika, ikatz-fabrika, ozpin-fabrika, alkohol-fabrika... izen horiek guztiekin ezagutu izan da Hernaniko Ereñotzuko Latsen, Urumea ibaiaren erantzuan kokatzen den fabrika-komplexua. Eta egia da produktu horiek guztiak egiten zirela bertan, baina baita askoz gehiago ere. Hori dela eta, erratzeko beldurrik gabe esan dezakegu lantegi hori gaur egungo petrolio findegia baten modukoa izan zela: petrolioaren ordez, egurra zuena lehengaia, eta hortik eratortzen zirela gainerako produktu kimiko guztiak. Garai hartarako itzelezko aurrerapausoa izan zen, ordura arte, egurretik ikatza besterik ez baitzen ateratzen. Horrez gain, garai hartan lantegiak aurrerapen handiko makineria zuen, zeregin askotarako uraren indarra baliatzen baitzuen.

Zertxobait atzera eginez, esan dezakegu lantegiaren aurrekariak gurean hain ohikoak ziren ikatz-txondorrak zirela. Baina, esan bezala, horietan ikatza besterik ez zen lortzen, eta askoz kalitate eta densitate-baldintza eskasagokoa gainera. Izen ere, txondorretako ikatzak nahasian lur asko izaten zuen. Ondorioz, XIX. mende-bukaeran, egur ikatza etxean gehien erabiltzen zen erregaietako bat zenean, lantegiaren sorrerak, ziur asko, Urumeako txondoren galtzea beste toki askotan baino lehenago iritsi izana ekarriko zuen. Mendietan bertan eraikitzen ziren txondor ezagun horietan, errekontza geldoak ikatza sortzen du, baina gas eta lurrunek atmosferara ihes egiten dute lurrez estalitako egur-pila piramidaren erpinean egiten den zulotik. Latseko lantegian erabilitako prozesuan, ordea, atmosferara isuritako lurrun horiek ere tratatu egiten ziren.

Destilazio lehorra edo pirolisia aspalditik ezagutu eta erabili izan da, teknologia kimikoaren lehen prozesuetako bat izanik. Dagoeneko XII. mendetik aurrera Errusian asko erabiltzen zuten pinu-mundruna egiteko (besteak beste, zurezko ontziak mundruneztatzeko). Metalurgia eta burdinolen

garapenarekin batera, zuraren destilazio lehorrean oinarritutako beste lanbide bat sortuko da, aipatu dugun ikazkintza. Baina zuraren pirolisiaren aplikazio industrialaren hasiera XIX. mendeari dagokio, eta garai horretan sortu zen Latseko produktu kimikoen lantegia, mendearen amaieran.

Garai berean, baina jada XX. mendearen hastapenetan sortuko ziren gure lurraldean egurra destilatzeko mota honetako beste adibide batzuk ere, hala nola, Lizarrustiko mendatetik Etxarri Aranatzera bidean zegoen Quifosa (Qimica Forestal, S.A.) izeneko lantegia, Jose Martin Arana beasaindarra sustatuta (1910). Beste adibidea Nafarroako Ekai herriko, Longida udalerria, instalazio bikainak ziren. El Irati S.A enpresak (burdinbidea eraiki zuen bera) zerrategi batean landutako egurren hondarrak, adarrak eta egur xehea aprobetatzeko, pirolisi lehorren metodoaren bidez egur-ikatza egiteko instalazio berritzaile bat muntatu zuen 1910ean, sortutako lurruna hainbat produktu kimiko destilatzeko aprobetxatuz. Egur hostozabalak egur-ikatz bihurtzean askatutako lurrunetatik produktu kimikoak berreskuratzea loratzen ari zen industria zen garai batean. Hala ere, agertokian substantzia petrokimikoak agertu orduko, zura antiekonomiko bihurtu zen metanol, azido azetiko, eta mundrunak eskuratzeko iturri gisa.

Gaur egun, Latseko instalazio guztien egoerak tamalgarria kalifikatzailea baino ez du merezi. 1980ko hamarkadan jarduera ekonomikoa behin betiko amaitu ondoren, hondamena iritsi zen lantegira. Langileen etxekek eraikinak okupatu zituzten erabilera pertsonalerako; hondakinen zabortegi gisa erabili ziren, arriskutsuak izan zitezkeen lurpeko instalazioak bete arte; ekipoen eta erreminten arpilaketa izugarria izan zen... gaur egungo egoera negargarrira iritsi arte.

2022an, orubearen jabetza osoa publikoa izanik, lurzoru kutsatuaren adierazpena ez dadila aitzakia izan agintariekin eta dagokion ondarearen arduradunek ezer ez egiteko. Urumeako errepidean gora edo




Latseketa "Hijos de Jaime Puig" fabrika-koplexua
1950 urte inguruan (argazkia: Kutxateka).

Lantegia lanean aritu zen azken urteetako
barne-banaketa, bereiz daitezkeen elementu guztiekin.

behera igarotzen garenean, Latsera begiratu eta tximinia eder eta arranditsua duen instalazio bikain eta historikoak zutik ikusteko itxaropena izan behar dugu, eta ez Urumeako bazter batean sastrakak irentsitako hondakin multzoa.

Bide horretan, Hernaniko Udalak esleitutako "Kultur ondarea 2021" bekarekin lanean ari ginela, Latseketa fabrika barru-barrutik bizi izan duen Leandro Minerrekin egin dugu topo. Haren ekoizpen-prozesuaren eta instalazioen ezagutzak bultzatu eta animatu gaitu lantegiaren inguruko monografikoa landu eta idaztera. Jarraian duzuena lan horren laburpena da, non aurretik ezagutzen ez zena azpimarratu den.





Ekoizpen instalazioaren barne-banaketa

- 1 Ikaztegia
- 2 Lastotegia
- 3 Baskula
- 4 Ikazte-labeen nabea
- 5 Lurrun-galdararen nabea
- 6 Etxe txikia
- 7 Tximinia
- 8 Zamalekua
- 9 Estalpeak
- 10 Turbina hidraulikoa (zerrategiarena)
- 11 Zerrategia
- 12 Biltegi handia
- 13 Komunak
- 14 Presa eta ubidea
- 15 Birakaria
- 16 Nagusiaren txaleta
- 17 Langileen etxea

Ekoizte-prozesua pausoz pauso

Latseko fabrikaren bi ezaugarri aipatuko ditugu lehenik, garaiko gainerako industriaren ezaugarriak ere bazirenak:

1. **Turbinak:** Instalazioetako makinak ez ziren elektrizitatearekin mugitzen, urarekin baizik.
2. **Zurezko egiturak:** marrazkien bidez konturatuko zaretenez, instalazioetako eremu asko zurezko egitura baten gainean zeuden. Hori, jakina, grabitatearen indarra aprobetxatzeko zen.

a) Lehengaia. Egurra

Ekoizpen-prozesua egurra ekartzetik abiatzen zen, horixe baitzen nahitaezko lehengaia. Inguruko basoetako haritza eta pagoa izaten zen batez ere, baina baita tarteka gaztaina ere. Dena den, pago-egurra omen zen, zalantzak gabe, horietatik onena. Azken aldera Tolosaldektik eta Leitzaldektik ekarri zuten, Urumeako mendietan intsipsis pinua erruz landatzen hasi baitziren. Baita Asteasuko zerrategi batetik ere, Urumean asko murriztu baitzen.




Pepe Puig eta Rafael Anabitarte, "Altzusta", egurrez betetako galderen aurrean (argazkia: Kutxateka).

Enpresak ez zuen garraio propiorik, eta fabrikaren eskariz inguruko kamioi gildariak ziren egurra ekartzeaz arduratzenten zirenak. Hala ere, egurra ekartzeko modua ere asko aldatu zen urteen poderioz. Lehenengo garaietan

mandazainek mando bizkarrean ekarri ohi zuten inguruko basoetatik, eta behin bailaran, gurdia gainean, uztartutako idi pareak tirata. Aurrerago, gerrostean ziuraski, lehen motordun kamioiak iritsi ziren GMC edo "Gemesiak", mutur luzeko kabina zutenak, "ciempies" ezizenez ere ezagutzen zirenak. Horrekin batera, mendietatik behera egurra jaisteko pistak zabaltzen hasi ziren.

b) Galdarak bete eta ikazte-labeetara eraman

Ekarritako egurra fabrikako eremu libreetan egoten zen, ilara handietan pilatuta. Lehengai hori etzanda egoten ziren burdin-txapazko galdera handi batuetan sartzen zen ondoren, erabat bete arte. Galdarak egur piletara bertaraino eramanda egiten ziren zamaketa lanak, eskuz noski.



Galdarak burdinazko ontzi zilindriko erraldoiak ziren, 1,5 m-ko diametroa eta 2 m-ko altuera zuen, eta labean sartzerako unean izan ezik, etzanda egoten ziren bi errailetatik mugitzen ziren orga edo bagoneta batzuen gainean. Bagoneta, galdera bezala, errailetatik mugitzen zen eskuz bultzatuta. Hiru edo lau norabidetan luzatzen ziren burdinazko errailak, eraikin nagusi barrutik galdarak gordetze-ko lekura, eta egur pila batera edo bestera. Errail sare haren guztiaren erdian edo bidegurutzean noranzkoa aldatzeko beharrezkoa zen "birakaria" edo "giratoria" zegoen.

Behin galdarak bete ondoren, ikazte-labeen nabea eramatzen ziren zuzenean, edo galda biltegi-ko bestela, atsaldeko edo gaueko txandetan sartu zitzaten. Han garabi berezi batekin bertikalean jarri, altxatu eta labean gaineko galdera-zuloan mantso-mantso barruraino sartzen zen.

c) Ikazte-labeen nabea, destilazio prozesuaren hasiera

Lehen nabe nagusiaren barnean errenkadan zeuden lau labeak, nahiz eta azken urteetan horietatik hiru besterik ez zituzten erabiltzen. Burdinez


eginda zeuden baina adreiluz babestuta suarekin kontaktu zuzena izan ez zedin. Labe bakoitzak berhealdean bere labe-ahoa zuen, eta gaineran galda-ra-zuloa, egurrez betetako galdarak sartzeko. Baina zulo horiek oso goian gera ez zitezen, labeak erdi hondoratuta zeuden.

Ekoizpen-prozesua hasi behar zenean, galda-ra-tapa jarri eta metalezko pintzakin irmoki lotzen zen, egoste-prozesuaren erdian askatu ez zedin. Gainera, prozesuan zehar oxigenoa barrura sar ez zedin, tapa eta galdaaren arteko juntura trapuetan bildutako buztinarekin estali eta zigilatzen zen, zirrikurik utzi gabe. Kontuan izan behar da egurra ez zela erretzen, egosten baizik. Galda goitik ixten zuen tapak tutu bertikal bat zuen erdian, berotze-prozesuan sortutako lurruna kanpora ate-ratzeko. Lehenengo lurruna gehienbat ura izanik, zuzenean kanpora isurtzen zen, baina lurrunak kolorez aldatu eta zuritik urdinkara hartu ahala (110°C), tutuari "kodo" edo ukondo bat eransten zitzaison gainetik. Horrela, gas lurrunkorra sistemari lotuta geratzen zen, eta orduan abiatzen zen benetan ekoizpen-prozesua. Labeek ez zuten tenperatura-neurgailurik, eta labeetaz arduratzen ziren sugin edo ikatz-botatzalek esperientziaren arabera egiten zuten lan. Hirurek batera egiten zuten lan, baina ez zen komeni hirurak egoste-prozesuaren une berean egotea.

Ikazte-labeetako keak, lurrun-galdarakoak bezala, lurpeko konduktu luze batetik lantokiko eraikuntza-ren beste muturrean dagoen adreiluzko tximiniara bideratzen ziren. Distantzia handia izan arren, halako tamainako tximinia batekin "tiro" on bat lortzen zen, eta erraz eramatzen zen kea tximinian gora kanpora isurtzeko.



d) Mundruna edo alkitrana

Mundruna edo alkitrana azido piroleñosoaren osagai nagusietako bat da. Labe bakoitzean egu-



rraren egosketan sortutako gasak "freskante" edo kondentsadore-sistema batera bildu eta berehalako likidotzen ziren piroleñoso landugabea deitutakoa osatuz. Eta hortxe bertan bereizten ziren lehen al-diz "salda" (azido piroleñoso) batetik, eta zuraren mundruna, bestetik. Bigarren hori, dekantazioz, saldaren behealdean geratzen zenez, grabitatez zuzenean barrika batzuetara eramatzen zen. Gainerako salda guztia, diluituagoa, errekkako urak eragindako ponpa baten bidez nabearen goiko aldeko tarteko biltegi batera igotzen zen, eta handik, grabitatez, kobrezko hodi luze baten bidez, bigarren nabeko beste biltegi edo andel handi batera eramatzen zen.

Lortutako lehen produktu hori, zuraren mundruna, 200 litroko zurezko barrika batzuetan jasotzen zen, ondoren ontzigintzan zuraren zaintzaile gisa, ontzi-kraskoak istingatzeko konposatu gisa edo bideen zoladurarako erabiltzeko. Albaitaritzako antiseptiko gisa ere erabili izan da. Oro har, bideak eraikitzeko gaur egun eskura dauden kalitateak, prezioa eta propietate fisikoak aztertuta, petrolioaren eta ikatz mineralaren industriatik eratorritako mundrunaren ordezko pobrea da. Hala ere, produktu kimiko industrial berezi gisa saltzen ez bazeen, erregai likido gisa ere erabiltzen zen.



e) Bigarren nabea, baporearen nabea



Ikazte-labeekin batera fabrikako beste instalazio garrantzitsua zen lurruna sortzeko lurrun-galdara, "baporea" langileen ahotan. Horretaz gain, nabeen banatuta honetan beste hainbat instalazio ere bazeuden, guztiak ere ekoizpen-prozesuan nahitaezkoak zirenak: kobrezko bi alanbike, "salda" beroa mantentzeko andel handia, "patata-irina" urtzeko biltegia, "pailak" garbitzeko zentrifugailua, pailak azido azetikoa kristalizatuarekin gordetzeko espazioa.... Ez hori bakarrik, nabearen erdian aldagela funtzioa betetzen zuen zurezko egitura bat eta bazkaritarako mahaia ere bazegoen.

Bigarren nabearen izkin batean dago lurrun-galdara, tutu horizontaleko galdara piro-tubularra. Xafla metaliko errematxatuz eraikitako ontzi zilindrikoa handia da galdara, kanpoaldetik adreilu erregogorrez estalia. Galdararen aurrealdean, behealdean eta erdian zentratuta errekuntza-ganberaren ahoa du, bi atetxoz ixten dena. Hortxe irakur daitekeen moduan, Frantziako "Constructions Mecaniques de S. Quentin" fundizio-lantegian 1884an eraiki zen (Aisne, Frantzia Garaia). Lurrun-galdarak, ikazte-labeek bezala, sutegi propioa behar zuen uneoro ondoan, bi

instalazioek gau eta egun egiten baitzuten lan, etenik gabe eguneko 24 orduetan eta asteko zazpi egunetan. Gainera, fabrikaren bi muturretan kokatuta egonik, ezin ziren bi instalazioak sugin bakar baten ardurapean egon. Baporeko ur-lurruna andel handira eramandako salda bero mantentzeko ezezik, alanbiketan alkoholaren destilazioa egin ahal izateko ere beharrezkoa zen.

Ekoizpen-prozesuarekin jarraituz, lehenengo nabeen mundruna bereizi ondoren, salda goialdeko hodi batetik barrena bigarren nabeen zegoen andel laukizuzen handi batera igarotzen zen. Bertan, salda bero-bero mantentzen zen ur-lurruna igarotzen zen hodi-sistemari esker, eta denborarekin saldarri bigarren motako alkitran geruza bat sortzen zitzzion azalean, "txapapote" moduko. Salabardoen moduko kirtendun sare handi batzuk baliatuz, alkitran hori jaso eta zurezko barraketan sartzen zen, bai ondoren saltzeko, bai fabrikako bertako ikazte-labeetan kontsumitzeko ere.

Bigarren nabean, errekaren aldeko hormaren aurka zegoen salda bero mantentzeko andel laukizuzen handia, egurrezko egitura baten gainean eta lurruna eta kiratsa biltzeko kanpaiaren azpian. Ondoan, patata-irina urtzeko ontzia zuen.



f) Alanbikeak

Behin bigarren motako mundruna aterata, salda kobrezko lehen alanbike handi batera ($2,5 \times 1,5$ m) bideratzen zen. Ontzi horretan ur-lurrunezko hodi-bihurriaren bidez salda irakite-puntura eramatzen zen, jarraian alkohola bereizi ahal izateko. Potiz edo garrafoitan gordetzen zen erauzitako alkohol hori. Lepo estuko beirazko botila handi biribil antzekoa zen potiza, kanpoaldetik metalezko sare edo estal-kiaz babestuta, eta 65 bat litroko edukiera izaten zuten. Lantegian ekoitzitako beste azpiproduktu batzuk ere potiz horietan gorde eta saltzen ziren.

Lortutako alkohola ez zen alkohol purua, metilikoa baizik (86°), erretzeko balio zuena. Alkohol purua, etilikoa (96°), kopuru handitan ekartzen zen kanpotik, ekoizpenean disolbatzaile gisa erabiltze-ko. Ondoren, bi alkohol motak saltzen zituzten, batez ere farmazietan edo farmazia-industrian: erre-tzekoa eta gorputzean zauriak garbitu edo igurzte-ko erabiltzen dena

Lehenengo alanbiketik ateratako salda kare-esneko soluzio batekin nahasten zen bigarren kobrezko

alanbikera eraman eta bigarren destilazio proze-sua gauzatu aurretik. Destilazio horretan, kondensadorean lortutako likidoa, kare-azetatoa, "paila" deitutako ontzi berezi batzuetara isurtzen zen. Bi-garren alanbikearen barnean geratzen zen saldak, berriz, ordurako baliorik ez eta kanpora isurtzen zen. Paila horietan tenperatura $16,6^\circ$ -tik behera jaistean kare-azetato likidoa kristaldu egiten zen, gogor-gogor eginda geratu arte. Prozesuarekin ja-rraitu behar zenean pikatxoia erabili behar izaten zuten solidotutako azetatoa kraskatu eta pailatik ateratzeko.

Ontzi metaliko laukizuzenak ziren pailak, bi metro luze, metro bateko zabalera, eta 0,6 metroko altuerakoak, goitik irekiak. Bigarren nabean,urrean bi ilaratan antolatuta jartzen zituzten negu-udaberrian kare-azetato kristalduaz bete ahala, dozenatik gora, nabeko azaleraren ia laurdena halako pailez gainezka egon arte. Udara partean, ozpina lortzeko azido azetikoaren eskaera handia zenean, horietaz baliatzen ziren. Izan ere, ez dezagun ahaztu, lantegiko produkturik nagusiena azetatotik eratorritako ozpina zen, ez zen egur-ikatza, ez alkitrana, ezta alkohola ere.

g) Hormigoizko tangetatik azido azetikoa


Ekoizpen-prozesua amaitzeko, kristalizatutako kare-azetatotik abiatuta azido azetiko purua lortzen zen, kanpoko hormigoizko bi tanga handitan. Lehenengo tangan uraren eta kare-azetatoaren nahasketa prestatzen zen, ondoren, bere horretan utzi eta azido azetikoa uretak eta beste sustantzia batuetatik dekantazio bidez bereizteko. Hala ere, horrela lortutako emaitzak, azido azetikoaz gain, ur-seinale asko zituen, hau da, oso irtsua zen. Onduan, bigarren tangaren eginkizuna zetorren: azido azetikoaren nahasketa horri "azido fuertea" (azido sulfurikoa edo klorhidriko) nahasten zitzzion, eta hemen ere dekantazio bidez, azido azetiko purua edo hutsa lortzen zen.

Baina fabrikaren produktu nagusia zen azido azetikoa edo ozpin puru hori oso fuertea izaten zenez, ondoren moteldu egin behar izaten zen ura nahasiz. Usain bereizgarria duen likido koloregabe hori 600 litroko zurezko bukoi handi batzuetan biltegiratzen zen "etxetxikia" deitutako biltegi-eraikinean, nahiz eta garaiatzerako orduan 150-200 litroko barrika txikiagoak erabiltzen ziren. Jatorri organikoa zuen ozpin hori Kantauri itsasoko arrantza portu nagusiak kontserba-, eskabetxe eta gazitze-lantegietara eramaten zen kamioikada bete barriketan.

h) Egur ikatza eta beste produktu batzuk

Ekoizpen-prozesua erabat amaitzeko, garabien laguntzaz, galdera zilindrikoak labe-zulotik atera eta ikaztutako egurra deskargatzen zen, palaz. Eskaeraren arabera, egur-ikatza zuze-nean zakutan sartuko zuten, edo bestela, baheitik pasa, bost bat tamainetan sailkatu, eta ikaztegian pilatuko zuten. Egur-ikatzaren baheketa zurezko kaxa sareduen batera botata egiten zen, uraren indarrak mugitutako ardatz eta lebaz osatutako mekanismo baten bidez. Ikatzik xehena, finena, altzairutegietara edo galdategie-tara eramaten zen, Hernaniko Orbegozo galda-tegi-fabrikara esaterako. Gainerakoa, Hernaniko Urbieta kalean zegoen moduko ikatz-dendetara eramaten zen.

Bigarren mailako beste produktu bat ur-lurruna kondentsatuz lortzen zuten ur destilitua zen. Batere mineralik gabeko ura zen, eta aipatu ditugun "potiz" ontzi berezi horietan saltzen zen. Eskaeraren arabera gehiago edo gutxiago aterako zuten lurrun-galdararen instalaziotik, betiere presio egokia mantenduz, horretarako ondoren berriro ur-ponparen bidez betez.




Garabia

Bere garairako Latseko instalazioak puntakoak baldin baziren, bazen Latseko fabrikan beste harribitxia ere: garabia. Galdarak eramateko orgak bezala, errailen gainetik mugitzen zen aurrera eta atzera, baina bere egiteko nagusia orgetan etzanda egoten ziren galdarak bertikalean jarri, altxatu eta labe-zuloetan sartzea izaten zen, eta behin prozesua amaituta, atzera labe-zulotik ateratzea.

Burdinazko makina zen, lau gurpilen gainean mugitzen zen plataforma batez eta bertatik diagonalean irteten zen beso batez osatua. Erabat eskuzkoa zen, mugimendu guztiak zegokion biraderari eragin eta horiek mugitutako engranaje sistemek bidez lortzen ziren: atzeko biraderarekin errailen gainetik aurrera eta atzera mugitzen zen, erdikoarekin beso birakaria birarazten zen, eta hirugarrenarekin dibidietan katea jaso eta pisua altxatzen zen, kasu honetan egurrez betetako galdarak.

Balazta-sistema bat ere bazuen, "maniobrak" mantso eta kontu handiz egiteko. Bestalde, beso birakaria luzea eta alde batera okertua zegoenez, kontrapisua zuen aurkako aldean.



Egurrez betetako galdarak labean sartu eta ateratzeko garabiaren marrazkia.

Jose María Puig Villar, "Don Pepe"

Fabrikaren sortzailea izan ez ziren arren, 1887rako Jaime Puig Moré industria-ingeniari kataluniarra (San Cipriano de Vallalta, Bartzelona - Hernani, 1934) fabrikaren zuzendaritzapean murgildu zen beste bazkide batzuekin batera. Urte gutxiren buruan, ordea, jabe bakar bilakatu eta fabrikaren erantzukizun guztia bere gain hartu zuen. Harrizkero, enpresaren izenean Puig abizena agertuko da beti -Puig y Cia, Jaime Puig eta Hijos de Jaime Puig-, "Aritzarenac" jatorrizko izen komertziala ere mantendu zuten arren.

XX. mendeko bigarren hamarkadan, Jaimeren seme Jose María Puig Vilar (Hernani, 1889-1975) arduatu zen lantegiaz, eta, zalantzarak gabe, bera izan da Urumea bailararen oriomenean iraun duen Puig fabrikarekin lotutako izen nagusia. Don Pepe izenez ezaguna, gizon zorrotza zen, baina, aldi berean, zintzoa eta onbera, ezagutu zutenek diotenez. Familia katalana zen arren, Don Pepe euskaraz hitz egitera ere iritsi zen, eta neurri handiagoan edo txikiagoan tratu zuzena eta bidezkoa izan zuen langile guztiekin. Eskuzabala ere ba omen zen, eta lantegiko langile batzuetan etxeetan behintzat, sekula ez zen azukrerik falta. Fabrikako ekoizpenerako ekarri behar izaten zutenez, Don Pepek inguruko etxeetan ere banatzen zuen. Horrez gain, Errege egunez opariak eta San Jose egunean pastelak urtero iristen ziren etxe batzuetara, baita haurrentzako arropa ere. Urtarrilaren 5eko gauean Don Peperen etxeean zapatak jartzea ohiko bilakatu zen berarekin tratu berezia zuten etxe batzuetan. Truken baserritar horiek oילaskoak, kapoiak, intxaurrak edo garaiko baserriko produktuak eskaintzen zizkioten Eguberri egunean.

Oso gizon elizkoria zenez, sekula ez zuen hutsik egiten Ereñotzuko San Antonio elizan hilabeteko lehen ostiralean goizeko zortzieta ospatzen zen mezatarra (primer viernes de mes). Irteeran haur



guztiak ilaran jartzen zitzaizkion eta hark politzikotik gozoki eta "txupete" motako karameluak atera eta banatzen zituen. Donostia aldean ez omen da izan Ereñotzuko haurrak adina karamelu jan duenik! Horrez gain, kasik arratsaldero egiten zuen Latseko txaletetik Ereñotzuko elizarainoko bidea otoitz egiteko, oinez, bastoia eskuan. Orduan ere haur ugari izaten zituen zain, eta berak gustuko zuen karameluak banatzea. Bere txaletean bulego bat ere bazuen, nahiz eta lanorduak lantegiko bulegoan igarotzen zituen, Leandro eta Xanti Irazusta anaiekin.

Puigtarrak lehen urteetan "langileen etxeen" bizi baziren ere, 1919rako eraiki zuten haren aldamean, errepidea eta ibaiaren arteko lursailean, Don Peperentzako txaleta.

Langileak, lanaldia eta hainbat pasadizo

Latseko fabrikan aritzen ziren langile gehienak, guztiak ez esatearren, auzoko edo inguruko baserritarrok ziren: Larratz, Izeneder, Akola, Aparrain, Abillats, Askatsu... Urumea bailarakoak guztiak, baina batez ere bailara goialdekoak, Ereñotzutik hasi eta Aranoko Askatsuraino. Beraz, diru-sarrera nagusia lantegiko jornala bazuten ere, baserriko lanari esker, beste pixkat bat ere atera ohi zuten. Bestalde, aipatu beharra dago langile guztiak gizonezkoak zirela, emakumezkorik ez zela egon fabrikan, baina bai Don Peperen etxearen neskame gisa.

Oraindik badira auzoan fabrika hura ezagutu eta hango kontuak ondo gogoan dituztenak, bertan lanean aritu zirelako, uda partean lantxo batzuk egin zituztelako diru apur baten truke, edo, besterik gabe, alboan bizi eta lantegiaren martxa txiki-txikitatik ikusi dutelako. Horietako batzuekin hizketan aritu gara, eta elkarrizketa horietatik ateratako hainbat pasadizo eta bitxikeria laburbildu ditugu:

Langileak hiru txandatan

Lan-jarduna eguneko hiru errelebotan antolatuta zuten, goizeko txanda, arratsaldekoa eta gauekooa. Goizekooa 6:00etatik 14:00etara izaten zen, hurrengoa 22:00ak arte, eta hirugarrena, gauez, goizeko 6:00ak arte. Hala ere, arratsalde eta gauetan bi personako erreleboak izaten ziren, bikoteka, biak suginak. Bata ikazte-labeez arduratzen zen, bestea lurrun-galdaraz. Hori bai, "maniobrak" egin behar zituztenean biak elkartzen ziren garabia bien artean gobernatzezk. Asteburuetan suginek bakarrik egiten zuten lan.

Edonola ere, Prontxio Miner enkargatuak goizeko 08:00etan puntuau kanpaina jotzearekin batera hasten zen lanean eguneko txanda, eta orduan egiten ziren labeekin loturarik ez zuten gainerako

zeregin guztiak: egurra prestatu, gaueko produkziorako galddarak egurrez bete, galddarak hustu, egur ikatza bahetu, konponketak, zamaketa lanak...

Bazkalordua

Eguneko txanda 08:00etan hasi eta 12:00etan, Prontxio Miner enkargatuak kanpaina jotzen zuen, denak bazkaltzeko prestatzen ziren. Ordu eta erdi izaten zuten horretarako. Bazkalostean siesta botatzeko astia ere izaten zuten batzuek. Bazkaltzera etxera joaten ez ziren langileek fianbrerak ekartzen zitzuten lantegian bertan bazkaltzeko. Horretarako, bi asto eta oholtzar batekin mahai eder bat prestatzen zuten bigarren nabe nagusien erdian, edo lehen nabean hotz egiten zuen, ikazte-labeen epelean.

Lurrun-galdarak presio handiegia hartzen zuen, alarma moduan txilibitu batek automatikoki jotzen zuen. Bada, bazen erreleboetako sugin bikote xelebre samar bat, egunero bazkalordua iristear zela, txistu-hotsa martxan jarri, kriston iskanbila sortu eta mundu guztia dantzan jartzen zuena.

Argiztapena

Argindarra sortzeko turbina hidrauliko eta sorgailu bat zeuden, baina "ipurtargi" gutxi batzuk elikatzeko besterik ez zuten ematen. Hortaz, uda parteko agorraldian batik bat, gauez ez zen beti argirik egoten, eta kandilak edo karburozko lanparak erabili behar izaaten zitzuten gaueko txandetan. Argazkian, Latseko fabrikako argindarra sortzeko turbina eta dinamoa.

Kamioi gidariak

Esan bezala, enpresak ez zuen kamioi propiorik, eta, beraz, zerbitzu hori auzoko kamioilariek eskaientzen zuten. Egurra ekarri ohi zuenetako bat Epeleko Benito zen, GMC muturluze horietako bat



Lehen nabea, ikazte-labeen nabea.



Bigarren nabea, lurrun-galdararen nabea.

zuena. Hori baino lehen, karga mando-bizkarrean ekartzen zen, sei eta zazpi mandoko karabanetan, mando bakoitza bere zamari-kartolekin egurrez topera beteta. Oiartzungo "Urdiña" zen mandoekin garraioan aritzen zenetako bat, baita Añarreko Manuel eta Abañoko "Rubio" deitutakoa ere. Mandoak pisatzen omen zituzten, karga eta guzti, beren "tarak" ezaguna zituztelako. Geroago, batzuk idiekin aritu ziren garraioan: horietako bat, Antonio Mari Oiartzabal (Izeneder baserrikoa). Eta ondoren kamioiak iritsi ziren, Epeleko Benito Iraola, Pagoagako anaiak, Beitia bizkaitarra, Joxe Leitzarra eta abar...

Akerregi auzoko Celestino eta Rufino Izagirre kamioilariek eramatzen zituzten beren kamioietan ozpinez betetako barrikak, baita Pagoagako Emilio Lizeagak ere, esnea biltzeko erabiltzen zuen Gurelesako zisterna kentzen zuenean.

Udan lanean

Udan, eskolan jai zutenean, langileen seme-alabekatko batzuk fabrikan aritzen ziren, sos gutxi batzuen truke, "kontrabandoan", orduan ez baitzegoen ez ikuskatzailerik, ez paperik, ezta horrelako ezer ere. Zerbait ordaintzen zieten zeregin batzuengatik, eta, jakina, mutil koskorra gustura.

Zeregin horietako batzuk ziren: txilarrezko erratzekin lurra garbitzea; beirazko potizak garbitzea, alkoholez edo ur destilatuz betetzeko; potiza eta metalezko sarearen artean lastoa sartzea buelta guztian, ez mugitzeko; patata-irina urarekin nahastea...

Labeak etenik gabe lanean

Ikazte-labeak eta lurrun-galdara ez ziren gauez gelditzen, ezta asteburuuetan ere. Jo eta su ari-



Bigarren nabea, lurrun-galdararen nabea.



Lurrun-galdararen gaur egungo egoera.

tzen ziren urte osoan lanean, harriatza errez egurra eta ura berotzen. Sortutako keak, ordea, lurrazpiko konduktu luzeetatik barrena lantegiaren beste muturrean dagoen adreiluzko tximinia erraldoira era-maten ziren, handik gora kanpora isurtzeko. Dena den, baziren urtearen amaiera aldera, Eguberrien inguruau, egun gutxi batzuk bi horien etenaldia egiten zutena, behin hoztuta, hodi luze horien barrualdean garbiketa-lanak egiteko. Bainaxuraxe bai zirkoa! Orduan ez zegoen gaur egungo segurtasun-buzo edo halakorik, eta zeregin hori burutu behar zuen langilea arpilarazko zakuez goitik behera estaltzen zuten. Hala ere, pentsatzeko den moduan, kedarra bezain beltza irteten zen langile gaixoa.

Trebreak eta traketsak

Gauza simpleenerako ere apur bat “mañosoa” izan beharra zegoen, baina baziren sugin xelebre

batzuk, besterik gabe harrikatz palakadak bota eta bota aritzen zirenak. Orduan noski, lurrun-isuriak izugarriak izaten ziren. Instalazioko zirrikitu guztietatik irteten zen gas lurruntsu mina, lantegi guztia harrapatz; baina baita lantegitik kanpokoa ere. Beti lagun bera izaten zenez, langileen etxetik oihuka erantzuten zioten: “Askatsuuu!”....

Don Pepe eta erreketeak

1936ko irailaren 12an errekete nafarrak Urumean barrena sartu zirenean, sekulako eskapada egin zuen Don Pepe. Erreketeak fabrikan sartu eta bazter guztiak miatzen hasi zirenean, langileek, Don Pepe babesteko, bere txaloteko “karbonera” ezkutatu zuten, eta hara! ez zuten hura miatu. Hernani aldera alde egin zutenean langileek berehalan eraman zuten gaez Aranorantz.

05. HERNANIARRAK NAZIEN KONTZENTRAZIO ESPARRUETAN

Haritz Muñoa Gomez

XX. mendea Europan, NaziSozialismoak markatutako mendea izan zen. Ezaguna da II. Mundu Gerraren testuinguruan gizarte talde ezberdinek izandako jazarpena: juduak, ijitoak, homosexualak eta... erregimenaren aurkako edonor... modu sistematikoan heriotzara eraman zutelarik alemania-rek. Nahiz eta urte luzez euskaldunekin zerikusirik izan ez zuten gertakariak izan diren, gaur egun, historialarien hainbat inbestigazio eta lanei esker argia ikusten ari den errealitate bat da euskaldunek kruzelkeria hori pairatu zutela.

1939ko irailaren 1ean piztu zen Bigarren Mundu Gerra, Alemania Naziak, haien ideologiak eta lidera zen Hitlerrek bultzatuta, Polonia inbaditu zue-nean, helburu argi batekin: konkista militar bidez domeinu eta supremazia ezartzea Europa osoan, haien "arraza" goratzearekin batera. Hurrengo hilabeteetan, Europako gainontzeko herrialdeak horien aurka aliatuko ziren, Espania izan ezik, besteak beste. Izan ere, Spainian erregimen diktatorial bat ezarri berri zen, Franco diktadorearena, 1936ko estatu kolpearekin eta ondorengo gerra zibilean izandako garaipenarekin, 1931tik indarrean zegoen II. Errepublikaren amaiera ekarri zuena.

Franco eta Hitlerrek ideia ugari zituzten komunean, faxismoa izanik haien gobernuen oinarria: izaera totalitario eta nazionalista duen doktrina, hau da, buruzagi bakarraren baitan datzan gobernua, indarraren erabilera bidez ezarria.



Franco eta Hitler Hendaiako tren geltokian bilduta.

Espaniako Gerra Zibilaren testuinguruan, errepublika aldeko ugarik Frantziara ihes egin behar izan zuten, Spainian jaso zezaketen errepresioaren beldurrez. Frantziar gobernuak erbesteratu guztiak Kataluniara bidali zituen, Francoren aurka borrokan jarrai zezaten. Hala ere, 1939an Francok Katalunia hartu zuen, bertan zeuden 100.000 euskal herritar baina gehiago Frantziara itzuli zirelarik. Euskaldun errefuxiatu horiek bide ezberdinak hartu zitzuten, haien egoera pertsonal edo pentsaeraren arabera. Ahal zuena Hego Ameriketara joan zen, eta bestek lana aurkitu zuten Frantzian, Ipar Euskal Herrian, bertan, lan esku merkea baitzen.

Frantziar gobernuak ez zituen errefuxiatuak nahi lurraldean, baina agintarieki, II. Mundu Gerraren

aurrean, Frantzian finkatutako euskaldunak eta espainiar errepublika aldekoak Frantziako armadan sartzeko agindua eman zuten. Euskaldun gehienak *Langile Atzerritarren Konpainietan* eman zuten izena eta *Maginot* lerroa gotortzen aritu ziren, Alemania eta Frantzia arteko mugan eraikitako defentsarako azpiegitura sare erraldoia, alegia. 1940ko maiatzean *Wehrmacht* alemaniarrak erasoaldi azkarra hasi eta aste gutxireن buruan Herbehereak, Belgika,



Ramon Serrano Suñer Hitlerrekin bilduta, Berlinean.

Luxenburgo eta Frantzia okupatu zituzten. Soldadu aliatuak *frontstalag* edo fronteko atxilotze guneetara eraman zituzten lehendabizi, eta ondoren ehunka kilometroko ibilaldi neketsuak eginarazi *Stalag*etara.

Espetxe horietan, es painiarrek zein euskaldunek gainerako presoen tratu bera jaso zuten hasiera batean, baina egoera guztiz aldatu zen Ramon Serrano Suñer Espainiako Gobernazio Ministroak 1940ko irailean Berlinera egin zuen bisitarekin. Bertan, naziek errefuxiatuekin nola jokatu behar zuten galdetu ziotenean hauxe erantzun zuen: “Espainiatik kanpo ez dago es painiarrik” edo “... ez zait axola zer egin errefuxiatuekin” (ehunka dokumentu topatu dira Serrano Suñeren inplikazio zuzena erakusten dutenak prozesu

honetan). Hortaz, hurrengo egunetan führerren agindua kaleratu zuen Segurtasun Bulegoak: *Spanier* soldaduei preso izaera ukatu eta kontzentrazio esparruetara bidaliko zitzuten momentu hartatik aurrera, deportatu politiko bilakatu zirelarik.

Historialarien teoria ezberdin arabera, 600 euskal herritar inguru izan daitezke nazien kontzentrazio esparruetara deportatuak izan zirenak 1940 eta 1945 urteen artean. Egun, GOGORA Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak kaleratutako txostenaren datuen arabera, 253 euskal herritar deportatu identifikatuak izan dira kontzentrazio esparruetan, haietatik 113 erail zitzelarik, 125 salbatu ziren (haietatik gehienak askatu eta aste, hilabete edo urte gutxira hilko ziren, naziek eragindako tortura fisiko zein psikologiko bortitzentz ondorioz) eta gainontzeko hamabostei buruz informaziorik ez dago.

Euskaldunak III. Reicheko kontzentrazio esparruetara deportatuak izatearen jatorria eta zioa Espainiako Gerra Zibila da. *Rotspanien* gisa identifikatzen zituen Gestapok, hau da, es painiar gorriak. Deportatu politiko izatera pasa zirenean 1940ko irailaren 25ean, aipatutako 253 hego euskaldun gehienak *Mauthausen* kontzentrazio esparrura bidaliz zituzten, alemaniaren esparru gogorrena eta ankerrena izan zena garaian, bertan helburua presoa akitu arte hiltza zelarik. Historiaren pasarte beltz hau Gipuzkoatik urrun gertatu zen arren, 80 gipuzkoarrek pairatu zuten, nazien krudelkeriaren biktimia izan zirelarik. Deportatu horien guztien artean 10 emakume izan ziren, ia guztiak nazismoaren aurkako erresistentzian parte hartu zutenak, horiek guztiak *Ravensbrück* kontzentrazio esparrura eraman zitzelarik (espresuki III. Reichek emakumeentzako eraikitako esparrua). Horietatik lau hil ziren, bi desagertutzat jo ziren eta beste lauak bizirik irten ziren.



Mauthauseneko kontzentrazio esparrua.



Emakumeak lanean, Ravensbrückeko kontzentrazio esparruan.

Naziek aurrera eramandako deportazioen alorean bi etapa egon ziren. 1940ko abuztutik 1942 hasierara eman zen lehen fasea, orduan Frantziako armadan sartuarazitako eta gerrako preso hartutako euskaldunak deportatu zituztelarik. Soilik lehen fase horretan deportatu zituzten 26 gipuzkoarren heren bat atera zen bizirik, izan ere SSkoek presoak kolpeka eta tiroz hiltzen zituztelarik, gupidarik gabe (oraindik ez ziren hedatu gure iruditegietan hain ezagunak zaizkigun gas ganbara industrialak). *Mauthausen*en kasuan, heriotza gehienak gaixotasunek, higiene ezak, hotzak (Alpeetako neguan 0 azpitik 20 gradukoa), goseak eta lan jasanezin enborioz eraginda izaten ziren. Lehen fase honetan deportatu zuten **Marcelo Vazquez Saez** hernaniarra, 1941eko urtarrilaren 25ean eraman zutelarik *Mauthausen*era eta, irailaren 14ean hil zen.

Bigarren fasea 1942 hasieratik gerra amaiera arte eman zen, 1945 maiatzera luzatu zena. Naziak gerra galtzen hasiak zirela ohartu zirenean, "burua galdu" eta edozein perfileko jendea deportatzeten hasi ziren kontzentrazio esparruetara, erregimenaren aurkako edozein susmagari (aurreko fasean ez bezala, gazteak, helduagoak eta emakumeak deportatzen hasi ziren). 54 gipuzkoar deportatu zituzten fase honetan, erresistentzia frantsesarenkin parte hartzea leporatuta. Hauetatik asko Ipar Euskal Herrian lana aurkitu zutenak izan ziren, sarritan alemaniarren aurkako sareetan parte hartzen zutenak aliatuak laguntzeko.

Juan Manuel Larburu hernaniarraren ibilbidea ezagutzea ezinbestekoa da bigarren fase honetan gertatu zena ezagutzeko. 1912ko abuztuaren 20an jaioa, Espainiako Gerra Zibilaren hastapenetan



Marcelo Vazquez Saezen omenez jarritako oroimen harria,
Casa Agujaren parean (Florida auzoa).




Juan Manuel Larburu.

ejertzito frankistara batu zen; Leridako frontean zegoela, Aragoiko mugan, bizilagun batek "gorria" gisa salatu zuen errepublika aldekoa zela aldarrikatuz frankistei. Jasoko zuen errepresioaren beldur, muga zeharkatu zuen Frantziara, eta lurraldea zeharkatu zuen Bartzelonara joateko. Kataluniako hiriburua frankistek hartu zuten hortik gutxira, eta Larburuk Urruñara ihes egin zuen. Bertan, Bidegain Berri baserrian hasi zen lanean, Frantzia Usandizaga alargunaren etxearen.

Bere atxiloketa Comète sarean parte hartu izanagatik izan zen. II. Mundu Gerraren testuinguruan, aliatuei laguntza ematen zion sarea zen, alemaniarren aurkako gudan Belgikako eta Frantziako Iurretan eroritakoei laguntzeko antolatutako sarea, alegia (1940 eta 1945 urteen artean deportatu ugari egon ziren Comète bezalako sareetan). 1941 urterea arte, Comète

te sareak Urruñako Thomas-enea baserrian zuen elkargunea, baina 1942ko uztailean beste leku bat aurkitu behar izan zuen. Hortaz, Frantzia Usandizagaren baseria izango zen momentu hartatik aurrera sarearen oinarria, Juan Manuel Larburuk bertan ziruelarik lanean eta sarearekin bat egin zuelarik.

Gauzak horrela, tropa alemaniarrek *Bidegain-Berri* baserrian atxilotu zuten Larburu beste kide batzuekin batera 1943ko ekainaren 3an, Fresnes kartzelera eraman zutelarik eta hortik Compiegne esparru frantsesera. 1944ko urtarilaren 19an, Pariseko Polizia Naziaren erabakiz *Buchenwald-Frossenburg* kontzentrazio esparru nazira bidali zuten, bertan ia hiru hilabete iraun zituelarik, apirilaren 4ean hil zelarik, 32 urte zituela.



Ezkerrean, Juan Manuel Larbururen desagerpen dokumentua, Compiegne kontzentrazio esparruan egon ondoren. Eskuinean, heriotza dokumentua Flossenburgen, 1944ko apirilaren 4ean.

Euskal historiografiak ezer gutxi azertu du orain arte gertakari horiei buruz, izan ere, Frankismo garaian isilean geratu ziren kasuak dira. Batetik, sistema frankistak berak ezkutatu egin zuelako (Europako faxismoaren porrotarekin, Francok, II. Mundu Gerran garaile ateratako aliatuek herrialde faxistengan zigorrak ezarriko ote zuten, askatasunaren eta giza eskubideen urraketa, genozidioa, tortura eta erailketa masibo, arbitrario eta sistematiko horietan parte hartu izanagatik). Eta, beste aldetik, aipatutako nazien porrotaren ostean, kontzentrazio esparruetatik bizirik ateratako deportatuen gehiengoa Frantzian finkatu zen, tartean 49 gipuzkoar zeudela. Horiek etxera bueltatzean diktadurak ezarriko zien zigor eta errepresioaren beldur ziren, hortaz, bizitza berri baten bila gelditu ziren mugaren beste aldean.

Ez hori bakarrik, Hego Euskal Herrian zirauten familiarrek ere errepresioa jasan behar izan zuten. Horren adibide argia dugu Joanito Larbururen testigantza, etxearen ezer gutxi entzun izan zuena osaba Juan Manuel Larbururi buruz. Haren aitona ere preso hartu zuten Gerra Zibileko testuinguruan, "Infernua" izeneko kartzela donostiarera eramanez, Juan Manuel semeak egindakoagatik, hau da, haren semea "gorria" izateagatik eta tropa frankistatik desertatu izanagatik. Hortaz, familiarrek isiltasunera jotzen zuten, arriskutsua baitzen haien famili kideekin kontaktatzea. Isiltasunaren bidez istorio hauek ahaztera kondenatuak izan ziren. Horregatik, beharrezkoa da testigantza hauek argitara ateratzea, hildako guztien oriomenerako.



Juan Manuel Larbururen oinordekoak, 2016an egindako omenaldian.

Izan ere, familia asko gaur egun ari dira haien berri izaten, txosten eta azterketa berriekin hasi baitira izen berriak ateratzen. Gainera, garaian etxeetan mingarria zen aita, ama, aitona, amona, osaba, izeba edota bizilagunari buruz hitz egitea, jakinda ze egoera latzak bizi izan zitzuten kontzentrazio esparruetan.

Aurten, 77 urte bete dira kontzentrazio esparru naziak askatu zirela, Sobietar Batasuneko soldaduen eskutik, Auschwitz-Birkenau izan zelarik azkena. Urtarrilaren 27a izendatu zen duela urte gutxi batzuk Holokaustoko Biktimen Konmemorazio eta Memoriaren Nazioarteko Eguna, harrez gero urtero ekintza ezberdinak egiten direlarik kontzentrazio esparruetan, Mauthausenen adibidez.

Askatasun eta giza eskubide guztien ukazioa, genozidioa, tortura eta erailketa masibo, arbitrario eta sistematikoak ardatz zituen nazismoaren biktima guztien memoriak bizirik mantentzeko urratsa eman beharra dago. Izan ere, horrelako ekintzak ahaztuz hasten da gizartea, indiferentziarekin amaituz. Memoria historikoa gizartearren zeregin morala da. Memoria, pertsona horiei identitatea itzultzean datza.

06.

BIPARETA: TRINKETE TXIKI BAT HERNANIKO ERDIGUNEAN

Iñaki Sanz-Azkue

Ezkiaga pasealekuau, Tilosetan, elizako paretaez beti bide zuzena egiten. Hormak bihurritu eta txoko txikiak sortzen ditu, leihoeatu, teilateuetzan eta tamaina askotariko koskekin eremu jostalariak sortuz. Haur parkerik ezean, 90eko hamarkada aurretik jaiotakoek aurkitu zioten pareten berezitasun horri jokoa, eta bataiatu ere egin zuten guneetako bat: Bipareta.

Elizako horma osatzen duten kareharrieik hitz egingo balute, kontatuko ligukete nola duela urte batzuk arte, Hernaniko umeak eta gazteak pilotan ibiltzen ziren bertan: eskuz eta palaz. Aspaldian hutsa ikusten da, ordea, berriz ere pilotazaleak noiz agertuko zain; txokoa noiz bizituko zain. Herri erdigunean trinkete txiki bat ez baita beti izaten!

Guk ere jolasten genuen bertan: Biparetan. Txikiak ginela ez baitzen haur parke askorik izango herrian, baten bat baldin bazezen; eta horren aurrean, guk bilatu behar jolasa, guk toki jostagarriak. Eta Biparetek hori badu. Elizako hormek, leihoeuk, teilateuek eta bertan dauden hodi eta harrien formek ematen baitiote bizitasuna eta nortasuna guneari. Nahikoa da pilota bat eskura izatea, lekuak berak eskaintzen





Biparetan aurki daitezkeen elementu ezberdinak:
txapa, leihoa / zuloa eta hobia.

duenari men eginez, une dibertigarri bat pasatze-ko. Guk, behintzat, eskola osteko arratsaldeak ber- tan pasatzen genituen, paretaren zoko eta forma guztiei zukua atera nahian, gurasoak lanetik eterri bitartean, amonak Tilosetako ezkien babesean, bankuan eserita zirela.

Azken urteetan, bertatik pasatzen naizen bakoi- tzean, alabaina, isiltasuna eta hutsunea dira na- gusi. Pilotak jada ez du elizako horma zaharra kol- patzen. Ume txikiak parkeetan dira eta gazte zein helduak frontoi handian. Bipareta, ordea, pilota hastapenak egiteko, edota helduen joko bizirako gune aproposa eratzen du frontoi nagusitik oso gertu. Nire ustean, erabilera askoz aberatsagoa izan zezakeen lekua da Bipareta, probetxu gutxi ateratzen zaiona, berak eman dezakeenerako eta duen kokapenerako.

Ezkerpareta edo Txirri pilotalekutik gertu

1951ean desagertu zen Txirri izeneko pilotalekua, egun ezagutzen dugun Tilosetako frontoi nagusia handitu zutenean. Ezkerpareta moduan ere ezaguna, pilotan jokatzeko gune berezia zen eta hala gogoratzen dute hura ezagutu zuten adinekoek. Orduko frontoiko frontisaren atzealdeak imajina ezineko forma eta txoko ezberdinak zituen Parrokiko hormarekin elkartzen zen gunean, pilota jokorako leku eder eta jostaria osatuz. Edota Mere García zenak Hernaniko urtekariako idatzi zuen "Viejos recuerdos de Hernani" izeneko artikuluan esaten zuen moduan, Txirri frontoia "zaila eta gaiztoa" zela ere esan daiteke. Ikuspuntuan dago gakoa.

Txirri izeneko pilotalekua jendez gainezka izaten zen, edo hala diote hari buruz idatzi diren erreportajeetan. Bertan partidak eta binakako pilota txapelketak ere jokatu zirela jakina da; bat baino gehiagotan, gainera! 1995eko Hernaniko urtekanian, Andoni Zugastik idatzitako artikulu ederrean eremuaren itxura, forma eta zati bakoitzaren izena eta informazio gehigarri asko aurki daitezke.

Ezkiaga pasealekuan edo Tilosetan, beraz, ez da pilotan jokatzeko eremu bakarra izan. Ezagutzen dira, gutxienez, hiru. Bata, erreboteko frontoia izan zena, eta Mere Garcíak dioen bezala, Santa Barbara Elkarteko etxearen zuena frontisa. Bestea, egun ezagutzen dugun frontoi nagusia, eta azkena, Ezkerpareta edo Txirri izenekoa, frontoi nagusia handitzean desagertu zena.

Horren ondoan, alabaina, Txantxila alderako bidea hartuta, egun jada utzia dagoen Urumea ikastola zenaren parean, Tilosetako ertz batean aurkitzen da Bipareta izeneko eremu, Txirri zegoen lekutik oso gertu. Ez du, noski, aurreko pilotalekuek izan duten fama izan, ezta, dakigula behintzat, txapel-

ketarik ere ez du jaso, nahiz eta frontoi nagusiko partidarako beroketa lanetan, umeak bertan zuriz jantzita, pilotan, ikusi dituenik ere baden. Biparetako eremuak, alabaina, trinkete txiki baten itxura du, eta Txirri zaharra bezainbesteko forma berezi ez dituen arren, pilota jokorako leku tentagarria eta jostaria da. Pilotazalearentzat, jolaserako ederra.

Hargatik, hernaniar asko dira gaztetan pilota jokatza Bipareta joaten zirenak eta hura gogoan dutenak. Bipareta pilotarako leku berezia eta ederra kontsideratzen dutenak eta jolaserako eta entretenimendurako hura bezalakorik ezagutu ez dutenak.

Bipareta: joko bizia eta bihurria

Euskal Herriko herri askotan bezala, elizaren paretak frontisaren papera bete du Biparetan. San Joan Bataiatzailearen parroquia elizak, alabaina, frontisa ez ezik, ezker horma ere eskaini dio guñeari; bai eta trinkete berezi baten itxura ematen dion teilatu inklinatuko eraikuntza txiki bat, ezker paretatik ateratzen dena, leihoa itxurako zulo eta guzti. Hori gutxi ez eta, txapa ere elizaren beraren parte den egiturak ematen dio, eta jokatzeko eremua, Ezkiaga pasealekuko arbolek markatzen dute hein handi batean. Eliza eraikitzean, noski, ez zuten horretan pentsatuko, baina hainbat belaunaldik zukua atera dio arkitektura bereziari, bai eta ezkien kokapenari ere.

Eta hala, horien arabera ere sortu dira joko arauak. Herritarrek, Hernaniko ume eta gazteek jarritakoak, eta belaunaldiz belaunaldi igaro direnak egun arte. Jarraian, horietako batzuk azaltzen saiatuko gara. Biparetan pilota jolasean orduak eta orduak igaro dituztenen ahotik jasotakoak, hain zuzen ere.

Orduak bitartean jolasean

Jose Mari Aldasorekin eta Iñaxio Sanzkin egin dugu zita gunean bertan. Lehenak orduak igarotzen zituen bertan jolasean. Bigarrenak, Atzietakoia izanda, gogoan du Biparetan ibili izana, baina “ez Atzietan bezain beste”.

Iñaxioren hitzetan, gazteak zirela ume andana aritzen zen Biparetan pilotan. Leku ezaguna zen herrikoentzat. Askok “Dosparedes” bezala ere ezagutzen zuten. Jose Marik gogoan du bikoteka egiten zituztela pilota partidak. “A fueras” edo “barrene”ra ere jolasten omen zuten ere noizbehinka.

Kontuak kontu, garbi dagoena da Biparetek bestetako frontoi askok ematen ez dituen aukerak dituela. Pilota jokoan abila behar du pertsonak bertako txoko eta ezaugarriak baliatu eta tantoa egiteko. Eta arauak ere laguntzen dute horretan. Izan ere, frontoi arruntekin alderatuz, Biparetan gauza asko ezberdinak dira, arbolak, leihoa osatzen duen zuloak, paretaren ertzak, goitik behera datozen hodiekin eta beste hainbat gauzak jokoaren araudia berezia egiten baitute.

Arauak: txapa ez da beti kale

San Joan Bataiatzailearen parrokian, elizak eta zoruak bat egiten duten eremutik oso gertu, zati luze batean bada paretaren irtengune antzeko bat. Bertan, hormak 45º-ko inklinazioa du zentimetro gutxi batzuetan, eta horrek berak, altuerak hala baimentzen duelako, eta pilota jokoan ari denak hala irudikatzen duelako, frontoiko txaparen funtzioa betetzen du. Logikak esaten duenaren arabera, txapa modura hartzen den elizaren zati inklinatuari jotzea kale egitea litzateke, baina, Biparetan arauak bereziak dira, eta txapa... ona da.

Hala kontatu digu Jose Mari Aldasorok, zeinak arau guztiak oso garbi dituen buruan: “Pilotak txapa jotzen duenean, behetik gora egiten du, hormaren inklinazioak lagunduta. Eta hala, jokoak jarraitu egiten du. Txaparen behe aldean joko balu, txapa-behera litzateke. Kale, alegia.”

Orokorrean arauak arruntak dira: pilotak pareta jo behar du, eta bote bakarraren ostean, pilotariak kontrarioak botatako pilotakadari erantzun. Pilotak frontisa joz gero, eta eremu barruan botea eman, ona litzateke. Hor, ordea, badira txoko eta irtingune berezi batzuk, kontuan izan beharrekoak eta arauen berezitasuna sortzen dutenak.

Esaterako, frontisa jo ostean pilota leihoa modura dagoen zuloan sartuz gero, jokoak aurrera jotzen du. Gerta daiteke ere, zuloan sartu eta berriz frontisera bueltatzea pilota, baina kasu horretan ere, jokoak aurrera joko luke. Balekoa da.

Jose Mariri sakeagatik galdetu diogu. Ea nondik egiten zen eta nondik norakoa ote zen, eta orduan, eskuineko bigarren arbolaren alboan jarri da: “ikussten al duzu ertz hori? Arbolatik ertzera joaten zen marra. Orduan lurra gogorra izaten zen, baina izaten zen halako harri txiki edo hauts moduko bat, eta hanka-rekin markatzen genuen guk marra”. Marraren bidea egin duenean, garbi gelditu da sakearen marra ez dela frontisaren paraleloa. Okerra dela, alegia! Jose Mariri galdetzean, ordea, garbi adierazi du hori zela haien sakeko marra. Okerra zela, baina hala zela!

Iñaxiok gogoan du zein zen irabazteko gako on bat: “Eremuaren atzealdean ez zegoen marrarik edo pasarik. Atzeraka denak balio zuen. Gakoa pilota atzealdean, frontisari begira gaudela, ezkerreko aldean jartzea zen. Hortik oso zaila da pilota era-matea, batetik, parrokiko hormak berak oztopatzenten duelako, eta bestetik, elizatik ateratzen den eraikuntza txikia ere hor dagoelako, pilotak frontisera egin behar duen bidean, erdi-erdian.”



Iñaxio Sanz (ezkerrean) eta Jose Mari Aldasoro (eskuinean), Biparetan.

Joko eremuan pasarik edo mugarik ez zegoen atzeraka, baina eskuinaldean, noski, bai. Eskuinean dauden ezkiek markatzen dute muga. Ezkiak lotzen dituen marra irudikatzea baino ez da marra nondik zoan ikusteko. Marra ezkien erditik joaten zen, ez ertzetik. Horrek, ordea, beste galdera bat irekitzen zuen arauen mundu kuriosoan: Eta frontisa jo ostean, pilotak ezkia joko balu? Aldasorok segituan bota du erantzuna: “*Arbola jo eta eremu barruan ematen badu botea, ona. Arbola jo ostean kanpora badoa, kale.*”

Iñaxiok eta Jose Marik gogoan dute oraindik ere frontisaren eskuinaldean ikusten den hodia begoela gazteak zirenean ere. “*Hodi hori ere jokoaren barruan sartzen zen!*”, esan dute irribarrez. Pilotak hodia joz gero, zaila izaten zen nondik aterako zen asmatzea, eta horrek ere bizi-tasuna ematen zion Bipareta partidari. Baten faltan, ordea, bi dira Biparetan aurki daitezkeen

hodiak. Teilitu etzanaren gainean badelako beste bat, pilotaren norabidea aldatu dezakeena. Erne eta bizi ibili behar du, beraz, bertan jolas-tent dagoenak, pilotarena ez ezik, bere noranzkoa ere moldatu beharko baitu denbora gutxian.

Leku hutsak birstortzen

Tilosetako eremuak, zalantzarik ez da, Hernaniko historian zehar sekulako garrantzia izan du, eman zaion erabilera-gatik, gizarte mailan izan duen harremanetarako, kirolerako, gizarteratzeko edota elkartzeko gune bezala. Bipareta kokatua dagoen lekua bada egun gune lasai bat, neguko eta udazkeneko egun hotzetañ eguzkiak goxo jotzen duena, eta udako egun eguzkitsuetan itzala duena.

Jose Mari Aldasoro eta Iñaxio Sanz umeak zirenean, herriko ume askoren jolastokia izan zen, pilotan ibiltzeko txokoa, eta hala bizi genuen guk ere 80. hamarkadako Hernanin ere. Bertan elkartzen ginen guraso, aiton-amona eta umeak, astean zeharreko arratsaldetan, euria egiten ez zuenean.

Egun, Bipareta luraren egoerak ez du batere laguntzen eremu berriz biziarratzeko edota guneari probetxua ateratzeko. Zorua osaera askotako asfaltoen petatzux dago osatua. Zuloak, konkorak, eta gorabeherako askoko lurra du oraintxe eremuak. Aspaldian konpondu gabekoa dela bistakoa da, alegia.

Bipareta luraren konponketak, zalantzarik gabe, asko lagunduko luke eremu bizitzen eta gazteak bertara erakartzen, bai eta pilotaren jokoak Ezkiaga pa-sealekuaren izan dituen eremu-tako bat berreskuratzen. Frontoiko luraren antzekoa zorua jartzeak, eta horrekin batera, eremu mugatuko lukeen marrak margotzeak, birstortu egingo luke Bipareta, eta Hernaniko hainbat belaunaldik erabilera eman dion txokoa berriz ere herriari eskainiko litzai oke egoera on batean.



Biparetako lurra egoera oso txarrean aurkitzen da egun.

Hala, Trinkete txikia ez ezik, izena ere mantenduko litzateke; hori ere galdu duelako ia. Ezkiaga pasealekuak, herriko espazio publiko moduan Hernaniri eta hernaniarrei eman diena ikertzea interesgarria litzateke, eremua dibertsifikatzeko eta bertako ondarea berreskuratzeko ahalegin txikiak egiteko ga-

raian, atzera begirada bat egin, eta etorkizunean zein motatako Tiloseta nahi dugun zehazteko. Eman diezaigun, beraz, aukera txiki bat Biparetari, obra txiki batekin, lurzorua aldaturaz. Hala, trinkete txiki bat irabazteaz gain, jolaserako eta gizartearrentzat txoko berri bat ere irabaziko luke Hernaniko herriak.



Ezkerrean, egungo egoera. Eskuinean, konponketa simple baten ostean sortu daitekeen eremua (muntaia: Irati Otamendi).

07.

LUIS MURUGARRENEN ETA JUAN MIGUEL REZOLAREN OROIMENEZ

Jose Luis Aperribai Madinabeitia

Udaletxearen suntsiketaren ehunurteburuan

Karlistadetan Hernaniko Udaletxea suntsitu zutela ehun urte betetzean (1875ko irailaren 16an gertatua), udal aretoan antolatu ziren mintzaldien artean, Luis Murugarren historialariari Hernaniko ermitiei buruzkoa gomendatu zioten.

Berak idatzia zuen 1970ean Hernaniren historia bat, bertako ermitena barne. Oraingoan Zikuñaga, Santa Barbara eta Sagastiako San Martin ermitiei atxikituko zitzaien.

Luis Murugarren historialaria eta Juan Miguel Rezola arkitektoa

Juan Miguel Rezola arkitekto hernaniarragandik jaso zituen zehaztasunak kontuan hartuta, hainbat aipamen nabarmendu zituen Murugarren jaunak hitzaldi hartan.

Hasteko, hiru ermita haietaz idatzirik zaharrenak 1623an ematen zituen historialariak, baina ia ehun urte lehenagoko testamentuak aurkitu zituen Oñatiko Artxibategian ermita haien aldekoak, 1529koak hain zuzen, Rezola jaunak aurretiaz seinalatutako urtekoak.

Zikuñagako irudia: eztabaidea-gai. Murugarrenen ikuspegia

Deigarriagoa izan zen beste honako eztabaidea-gai hau: Zikuñagako Amaren irudiari zegokiona, alegia.

Murugarren jaunak zioenez, bai Zikuñagako ermitako atalaurreak, bai Ama Birjinaren irudiak, gotikoak, XIII. mendera garamatzate, Hernaniko hiribildua sortu zuteneko garaira alegia.

Aldez aurretik, ordea, beste iritzi bat zuen. Ama Birjinaren jatorriari dagokionez, “Gipuzkoan zazpi amabirjin beltzen artekoa zela” zioen esaldia zabaldua zegoen eta historialariak halakotzat zeukan. Murugarren jaunak, gainera, Altzega jaunari egozten zion hegoaldeko lurraldetatik ekarri izana gudualdi baten ondoren. Berak aitortzen du fantasiaren eraginez eta ez datu historikoetan oinarrituz hipotesi horretara makurtu zela. Arrazoia? Ama Birjinak bere eskuetan granada-fruta zeramala uste zuen.

Beste behin, Rezola jaunak hala argudiatuta, atzera egin zuen eta, gorago genioen bezala, Hernani hiriko kaxko zaharra eraiki zuteneko garaiarekin lotu zuen. Rezolak bere aldetik baiezatzen zuen Ama Birjinak ez zeramala ez granadarik, ez sagarrak (ohiko andramarietan bezala), lore bat baizik.

MURUGARREN ZAMORA, L.: Conferencia sobre las ermitas de Hernani en el salón del ayuntamiento de Hernani, con motivo de la conmemoración del centenario de la destrucción de la casa consistorial de Hernani el 16 / IX / 1875. Hernani, 1975.
REZOLA AZPIAZU, J. M.: Zikuñaga 1974. La ermita es anterior al siglo XVII. Unidad egunkaria. Donostia. 1974ko irailak 6 eta 7.

[I]



[II]



[III]



Argigarri izan daitezke-elakoan, hona hemen eztabaidea-gai izan ziren testigantza grafikoak:
 [I] XIII. mendekoa: zuria eta loreduna.
 [II] 1946ko grabatua, beltzarana eta sagarduna.
 [III] 1947an "zaharberri-tua", beltza eta sagarduna.

Rezolaren ikuspegia

Urte bete aurretik, 1974ko Zikuñagako festa-egunaren bezperetan, Rezola jaunak idatzia zuen prentsan ateratako artikulu luzea.

Beste gauza askoren artean aipagarrienak seinalatuko ditut hemen, oso labur.

1. Lehenbizi, Euskal Herriko historia erlijiosoan aritua zen Adriano Lizarralde aita frantziskotarrari jarraiki, 1947an egin ziren ermitaren eta irudi beraren zaharberrikuntzak.
2. XIII - XIV mendeetara atzeratzen zituen imajina eta ermitaren eraikuntza. Beranduko arte erromániko eta gotiko arteko aztarnak gordetzen zituzten; Erdi Aroko erromesen ibilbide nagusien alboko bide-adarretan kokatuak baitzeuden Gipuzkoako ermitak, gehienbat.
3. Zikuñagako Andre Mariak, zaharberritu ondoen, "tonu argizko polikromiak" galdu zituen, antzinako tailaren tonu iluna berreskuratzeko.
4. Gainera, gora altxata lorea zeraman eskuak posizioz aldatua zuen: oraingoan behera jaitsia zuen, sagar bat eutsiz.
5. Eta enigma korapilatsuago eta bihurriago egi-teko, garai bertsuan, irudia zaharberritzera eraman baino lehen, 1946an alegia, bi irudi motako estanpak banatu ziren: bata, antzinako zuri polikromatua eta loreduna, XIII. mendekoa [I] eta beste bat lumatxo grabatua, beltzarana eta sagarduna [II]. Eta, azkenik, behin "zaharberrituta gero" itzuli zena, beltza eta sagarduna [III].

Bukaera

Modu labur batean bada ere, lerro hauetan historialariak eta arkitektoak elkarrekiko izan zuten jarrera eta elkarlana berreskuratu eta goraipatu nahi izan ditut. Oroimen gisa, bihoakie biei aitormen xume hau.

Noski, enigma korapilatsu hau inoiz argitu eta erabakiko bada, desagerrazitako irudia itzultzean eta bere gain ikerlan sakon bat egitean burutu ahal izango daiteke. Eta herri honen ondare historiko eta erlijioso baliotsua berreskuratuko litzateke. Hala espero eta desio dugu.

08.

JAVIER ZUBIMENDI (HERNANI, 1945)

Aloña Beraza Peña



"Kantuan aritza
terapia da askorentzat,
eta horren lekuko izatea
oso pozgarria da"

Hernaniko Goiz Eguzki Abesbatzaren gidari da gaur egun Javier Zubimendi hernaniarra.

Hernaniko *Plaza de España* jaiotakoa dela nabamentzen du, eta plazagizona dela dio, baina ez saltseroa. Bizitza osoa darama kantuaren, eta urte luzeko eskarmenak du taldeean gidaritzapean. Hala ere, beste arte diciplina batzuetarako zizka-mizka batzuen egilea ere bada, hala nola, antzerkirako gidoiak idatzi izan ditu.

Artista polifazetikoa, hala desribatzen zaituzte askok. Horrela sentitzen zara?

Musikaren eta idazmenaren esparruan mugitzen naiz gehien bat. Gainera, bietatik bat aukeratu beharko banu, gehiago gustatzen zait idazmenari lotutako edozer egitea. Idaztea asko gustatzen zait, batez ere gero beste norbaitek nire testuak hartu eta taula gainera eramatzen baditu. Dene-tarik idazten dut; ipuinak, bestelako kontakizunak, eleberriak, eta baita antzerki gidoiak ere bai. Gogoan dut antzerki obra bat idatzi nuela eta izugarrizko arrakasta izan zuela. Bederatzi saio eskaini genituen Biterin, eta saio guztiak goraino bete genituen. Kastillako Dorreak antzezlanarekin gertatu zen hori, baina denera nik idatzitako hiru obra antzeztu dira; *Tangoka*, *Kastillako Dorreak* eta *Txano barra gorro*. Eiszeneratzeaz bon Arregi, Txaro Untzilla eta Ainhoa Pineda ardu-ratzen ziren, eta Euskal Herrian barrena mugituginen lan horiekin.

Bistan da kontzertuetan ez ezik, antzerkiarekin lortu duzula baita ere aretoak jendez lepo ego-tea. Nondik sortzen da *Kastillako Dorreak*?

Haurra nintzenean, hamar urte inguru izango nintuen, udalekuetan joan nintzen Burgosera, eta katedrala ikustera eraman gintuzten. Txunditura geratu nintzen bertan ikusitakoarekin. Gainerako taldekeidei bezala, niri ere asko gustatu zitzaizkidan Burgosko Katedralaren dorreak. Urte batzuk beranduago, heldutan, lan bidaia bat egin behar izan nuen Madrilera, eta orduan ere Burgosen bizi izandako esperientziaren antzekoa gertatu zitzaidan; finan-tza-hiriaren dorreek zur eta lur utzi ninduten. Egia da gerora ere beste dorre batzuk ikusi ditudala, hain justu, Soto del Real espetxeko dorreak. Testu bat lantzen ari nintzen antzerkirako, eta izenburu bat jarri behar nionez, buruari bueltak ematen jabetu nintzen dorre horien guztien artean bazegoela lotura bat. Dorre batzuk plazera eta gozamena sorrarazi zidaten, eta besteek, aldiz, zorigaitzoko ametsa.



Bederatzi saio eskaini zituzten Biterin Kastillako Dorreak antzezlanarekin.

Lan guztiak dute oinarria benetako bizipenetan, ala zerk inspiratzen zaitu?

Inspirazioa bakarrik etortzen da, edozerk balio du horretarako. Aginetako mina baduzu ez dago idazten hastea baino analgesiko hoberik. Ez dut esango egunero idazten dudanik, baina ia astero egiten dut, beraz, edozerk iradokitzen dit zerbait. Testu batzuk sakonagoak dira, baina beste asko era guztiz informalean idazten ditut, horiek dira gero lagunei *Whats App* bidez bidaltzen dizkiedanak.

Duela hamabi bat urteko kontuez ari gara. Noiz hasi zinen lan idatziak egiten?

Egia da mutikoa nintzenetik dudala gustuko idaztea. Oso gazte hasi nintzen, eta denborak aurrera egin ahala idazmena lantzen jarraitu dut. *Egin* egunkariko publizitateko lantaldeko kide nintzen, beraz, lan komertziala egitea zegokigun guri, eta baita idaztea ere. Kuban izan nintzen elkarritzeta batzuk egiten, Parisera ere joan nintzen erreportaje bat egitera, eta gisa horretako lanetan aritzen nintzen ni. Horiek izan ziren hastapenak, baina orain egiten dudanak ez du zerikusirik. Elkarrizketa formatua oso gustuko dut eta narrazio sakonak idaztea baino nahiago ditut elkarritzeta moduan plazaratzen diren hartu-emanak. Paragrafo potoloetan kontatu daitezkeen pasarte horiek galdera-erantzunen bitartez bideratzea dinamikoagoa iruditzen zait, beste edozein elkarritzketaren antzera.

Halabaina, trampaldo gainean musika egiten ikusten zaitugu maiz.

Nire aita herriko organista zen, eta askotan kontatudidate nire jaiotza eguneko pasartea. *Plaza de Espa-*

ñan

jaiotakoa naiz, gaur egun Gudarien plaza izenez ezaguna den udaletxeko plazan. Amak erditzen ninduen bitartean aita alboan zegoen pianoa jotzen, ni jaio bitartean urduritasunak lasaitzeko. Esan daiteke mundu honetara iritsi nintzenean en-tzun nuen lehenengo soinua piano akorde bat izan zela, atera kontuak hortik. Etxean izan dugu beti musika, horrela bizi izan dugu. Nire arrebak pianoko ikasketak egin ditu, eta nik, solfea ikasteaz gain, lau urte eman nintuen Donostiako kontserbatorioan pianoa ikasten.

Hogei urte besterik ez zenituela sortu zenuen zure lehenengo otxotea. Zer egiteko gogoa zenuen?

Hamasei urterekin hasi nintzen abesbatzak gidatzen, lehenengoa *Luisen* ikastetxean ginenean egin nuen, eskolan. Hortik urte batzuetara, hogei urterekin sortu nuen lehenengo otxotea. *Schola Cantorum* abesten genuen, Hernanin indar handia zuen On Gabriel Olaizolak gidatutako abesbatza hark, eta talde horretan gazteenak ginenok otxote bat sortu genuen. Zortzi lagun ginen kantuan aritzeko gogoz ginenak eta horrela sortu zen. Bertan parte hartu genuen Tomas Garmendiak, Jesus Arregik, Luis Telleriak, Joxeramon Beroizek, Josetxo Zubimendik, Juanito Olaizolak, Javier Gimenezek, Miguel Angel Martínezek eta nik.

Taldea sortu eta berehala Victoria Eugenian abestu genuen, baita Aitor zineman ere bai, eta irteerak ere egin genituen. Gogoan dut ez genuela izenik taldearentzat, eta lehenengo emanaldia eskaintzera joan ginenean Azkoitira gure izenarengatik galdu ziguten; izenik ez genuela esan, eta bertan bataiatu gintuzten: Gazteak. Azkoitiko emanaldi horretako partaide gazteenak ginen, eta hortik aurrera izen horrekin geratu zen gure zortzikotea.



Hogei urterekin sortu zuen lehenengo otxotea Javier Zubimendik.

Hortik aurrera ibilbide oparoa duzu abesbatzatan, non eman zenituen hurrengo urteak?

Beti jarraitu dut kantuan. 2000. urte inguruan Kantuz Abesbatzan sartu nintzen. Izatez, abestea zen nire asmoa, baina une horretan taldearen gidaritza zeramaten bi emakumeak, Jaione Escudero zen zuzendaria eta Arantxa Astigarraga zuzendariordea, biak haurdun geratu ziren eta ni egin ninduten Kantuzeko zuzendari. Solfeoa nekiak bakarra nintzen, beraz, sartu eta berehala hartu nuen kargua. Denera hamaika urte eman nituen Kantuz Abesbatza gidatzen. Gerora, Goiz Eguzki parean Paco Goiarekin topatu nintzen, Goiz Eguzkiko alma materrarekin, eta erretiratuen abesbatza bat sortzeko proposamena luzatu nion. Herri askok zuten ordurako jubilatuen abesbatza bat, eta guk ere behar genuen. Horrela hasi genuen kanpaina prozesua; Urumeako Kronikan eta beste hainbat hedabidetan zabaldu genuen deialdia, herrian publizitatea egin genuen eta horrela sortu genuen gaur egun Goiz Eguzki Abesatzaren izenean ezagutzen dugun taldea.

Gogo handia zenuten, eta proposamena ere mahagainean. Taldekideak topatzea asko kosta zitzaiuzen?

Gutxinaka proiektuari forma ematea lortu genuen, eta urtebete behar izan genuen makinaria martxan jartzeko. Segituan iritsi ginen 40 partaideko langa gainditzera, eta zifra hori mantentzea lortu dugu. Izen-estateak laster batean hasi ziren, erantzuna bikaina izan zen. Izan ere, 50 kide izatera iritsi ginenean abesatzako atea itxi behar izan genituen. Alegia, inor gehiago ezin zela sartu erabaki behar izan genuen. Abesbatza sortu eta bi astera gertatu zen hori, eta arrazoi bakarra zegoen horren atzean: autobus bakarrean 50 lagun sartzen ginen gehienez, eta kontzertuak emateko batera eta bestera mugitzeko arazo bat zen guretzat kopuru horretatik igarotzea.

Hala ere, orain perspektibarekin begiratuta, ez genuke halakorik errepikatuko sekula; abestu nahi duenak beti izango du tokia Goiz Eguzkin, egoera hori errepikatuko balitz moldatuko ginateke autobusaren eta auto pribatuaren artean. Gainera jubilatuen abesbatza batek beste ezaugarri bat du, eta hori da etengabe jende berria sartuko dela, besteak beste, gure adin-tartea kontuan izanik gutxinaka kideak gure albotik joaten direlako.

Aurten 15. urteurrena ospatzen duzue Goiz Eguzki Abesbatzan. Atzera begira jarrita, zer aldatu da denbora honetan?

Izugarria da jabetza denborak nola egiten duen ihes, eta izugarria da baita ere denbora honetan Goiz Eguzkik egin duen hobekuntzaz ohartea. Polifoniarekin ikuspuntua soilik kontuan hartuta, orain lau ahotsetara abesten dugu. Hastapenetan ahots bakarrean aritzen ginen, gero bi ahotsetara, emakumeak alde batetik eta gizonak bestetik. Gogoan dut lehenengo entseguetan boleroak abesten genituela bi ahotsetara, belarri hutsarekin. Orain, ordea, lau ahotsetan aritzen gara, eta armonia lantza lortu dugu. Egia da ahots kalitatea ez dela izugarri ona, kontuan hartu behar da adin batetik aurrera ahotsa galdu egiten dela, eta arnasa ere ez dela berdin hartzen. Hala ere, atzera begira jarrita batez ere nostalgia handia ematen du gure artetik joan direnekin oroitzea, hori duelako baita ere erretiratuen talde batean aritzeak.

Momentuz Goiz Eguzkik izan duen zuzendari bakarra zara, eta erreleboa eskatzeko asmorik gabe gainera. Zein izaten da zure egiteko?

Alde musikalaz arduratzen naiz ni, bestelako ku-deaketak eta logistika kontuak Goiz Eguzki Abesbatzako jubilatuengatik batzordeko presidente den Joxan Mitxelenak daramatza. Gainera, Goiz Eguzki Abesbatzak bi zuzendari musical ditu; nire arreba Ixiar Zubimendik gidatzen du emakumezkoen taldea eta nik gizonezkoena. Izan ere, ahots zuriak asko gustatzen zaizkigu, gizonezkoenak ere bai, eta baita bien arteko nahasketak ere. Guk eskaintzen ditugun kontzertu guztiak abesti batzuk emakumeek soilik abestutakoak izaten dira, beste zati bat gizonezkoen lantzen dute, eta gero kontzertuaren hirugarren zatia elkarrekin egiten dugu. Horretarako ditugu bi zuzendari, eta entseguen hasieran taldea ere bitan

banatzen dugu. Hortaz gain, ahots korda bakoitzak arduradun bat du, eta horietako bakoitzaren zeregina da Whats Appetik grabazioak bidaltzea.

Nire lana, ordea, kontzertuetako errepertorioa era-bakitza izaten da gehien bat. Zeregin hori nirea da oso-osorik, eta hor ez diot inori esku hartzen uzten. Programa bat sortzea ez da kantu politak aukeratza bakarrik. Kirolean ere berdin gertatzen da, futbol partida batean jokalari onak izateak laguntzen du, baina horrekin bakarrik ez zoaz inora. Musikan ere berdin, ezaugarri asko hartu behar dira kontuan, eta oso garrantzitsua da programa egokia aukeratza. Horrek beti eskatu izan dit dedikazio handia, baita Goiz Eguzkira iritsi aurretik ere bai. Entzulegoa aspertu dezakezu kontzertu batean, edo interesgarri eta dibertigarri egin dezakezu emanaldia aukeratzen duzun abestien arabera, eta kantu ordenak ere eragiten du. Urrats garrantzitsua da, eta ilusio askorekin bizi dut oraindik ere.

Partiturak aukeratzen ditut nik, baina ez dut moldaketarik egiten ez dudalako armoniaren ezaguetzarik. Honezkero sorturik dauden moldakete-kin aritzen gara, gaur egun Interneten denetarik topatu dezakegulako. Gainera, horrenbeste urte kontuan aritzeari esker, etxearen artxibo handi bat dut era guztiak kontuekin. *Schola Cantorum*eko partitura ere bertan daude. Musika motaren eta hizkuntzaren arabera sailkatuta ditut denak, bost multzotan banatuta.

Baduzu erantzukizuna. Zer esan nahi du zuretzat herriko erretiratuen abesbatza gidatzeak?

Zorioneko naizela sentitzen dut. Abesbatza batetik beti du dimentsio terapeutiko handia, berdin dio taldekideen adina zein den. Terapiaren faktorea ukaezina da, eta are gehiago gure testuingurua kontuan hartuta. Endorfina esaten zaio zoriontasunaren droga naturalari, eta hori kantuaren bitar-

tez sortzen da, besteak beste. Alargun asko dago gure abesbatzan, eta kide asko hurbiltzen zaizkit entseguaren amaieran esatera kantua etortzeak zein mesede egiten dien. Arratsalde osoko plana izaten da gurea, astean bi hitzordu ditugu, aste-lehenetan eta ostegunetan, eta ia bi ordu ematen ditugu kantuaren. Hortik atera eta herriko taberna bateko terrazara joaten gara elkarrekin egotera ilundu arte. Kontu kontari aritzen gara, eta batzuetan baita kantu kontari ere. Bakardadeari aurre egiteko modua da abestera etortzea, entseguetako partehartza oso handia da, normalean beti elkartzen gara 40 lagunetik gora, eta oso hutsegite gutxi egoten dira.

Argi dago onura musicalak ematen dituela abesbatazka bateko kide izateak, baina pozgarria da niretzat terapia eta zaintza honen lekuko izatea. Niri ere ger-tatu zait, jende asko ezagutzen nuen herritik, baina abesbatzan elkartzeak aukera eman dit harreman horiek sendotzeko; jende askorekin elkartu naiz berrriro bidean. Esango nuke pandemiaren ondorenak hor ere eragin duela, eta baliteke abesatzako ki-deek orain gogo gehiagorekin hartza kantu.

Taldea sortu zenuteneko partaidetza kopuru antzekoan zabiltzate. Horrek zer esan nahi du, mantentzen da abesteko joera ala somatzen duzu hori ere galbidean dagoela?

Baliteke galtzear egotea. Egia da gaur egun estimulu ugari ditugula eta denbora pasatzeko tresna asko ditugula inguruan, baina ez dugu ahaztu behar bi urte egon garela geldirik, eta horrek kalte handia eragin digula. Abesbatza asko desagertu egin dira, beste batzuei asko ari zaie kostatzen lehengora itzultzea eta oraindik kutsatzeko beldurrak ere hor jarraitzen du. Faktore horiek denek asko eragiten dute.

Hala ere, guk kalez kale kantari ekimena dugu martxan, eta kalera ateratzen garen bakoitzean jabetzen gara harrobi sendoa dugula. Irteera horietan jende asko hurbiltzen da; batzuk kuriositatez, beste batzuk kantuaren aritza gustuko dutelako baina entsegutara etorri nahi ez dutelako, edota musikarekiko zaletasunak baino euskararekiko babesak bultzatuta batzen direlako gurekin kalean. Are ge-hiago, batzuk hurbildu izan dira guregana irteera



Donostiako Kursaaleko zubiko musikariekin elkarlanean kontzertua eskaini zuen Goiz Eguzki Abesbatzak.



Goiz Eguzki Abesbatzak 2007an ekin zion bere ibilbideari, eta hamabost urteren ondoren baliabide terapeutikoa bihurtu da kide askorentzat.

batean, eta gero abesbatzan sartzen animatu dira. Kaleak hori ematen digu, beste edozein egoeratan abesbatzara hurbilduko ez litzatekeen jendearengana gerturatzeko aukera, hain zuen ere. Jende asko dago ez dela auditorio batera joango musika entzutera, baina, aldiz, kalean topatuz gero, gustura asko batzen dira gure festara.

Partaideen artean era guztietako musika ezagutza izango da. Nola moldatzen zarete?

Ezagutza tekniko bat bera ere ez dugu. Solfeoa abesbatzako hiru kidek soilik dakigu, baina hori ez da garrantzitsuena. Jakintza musicalik izan gabe ere badaude ezagutza naturalak; belarria, esaterako, hori ez da erosten. Hala ere, nahi duenak jaso ditzake solfeoko eskolak, Mila Ituarte gure abesbatzako kideak solfeoko klaseak ematen dizkio hala nahi duenari.

Nolakoa da zuen errepetorioa?

Oreka topatzea da gakoa, eta horretan ahalegintzen naiz. Ez dut gustuko abesti guztiak antzekoak izatea, monotonoegia geratzea ez delako ona. Anitzasuna egotea gustatzen zait, eta hizkuntzaren aldetik gutxienez errepetorioaren erdiak euskaraz izan behar du. Hala ere, atzerriko hizkuntza batzuetan ere abestu izan dugu. Gogoan dut behin abesbatzako kide batzuk Donostiako Kursaaleko zubira joan ginela, eta Zubian bertan kantuan eta dirua eskatzen zebiltzanei gurekin kontzertu bat emateko proposamen egin genien, eurek akordeoia jo eta guk abestu. Kursaaleko musikariekin batera, Astigarragan garai hartan bizitzen egon zen komunitate errumaniararekin ere bat egin genuen. Guziok elkarrekin entseatu genuen, txabolen artean bildu ginen pare bat aldiz, eta kontzertu bat ere antolatu genuen. Oso oroitzapen polita dut, zoragarria izan zen esperientzia hura. Kasu horretan errumanierazko abesti bat ikasi genuen beraiekin abesteko. Gogoan dut horretarako harremanetan jarri nintzela Errumaniaik Madriden duen enbaxadarekin, eta eskatu nien kantua itzultzeko letrak zer zioen jakin ahal izateko.

Bi hitzetan

Karpetadun ala karpetarik gabeko emanaldiak?

Karpetarik gabe eta kalez-kale bada hobe. Hori bai, beti behar dut ondoan partitura duen norbait kantuau hasi aurretik tonua eman ahal izateko.

Afizio ezkuturik?

Sukaldean aritzea eta futbola.

Eguneko momenturik onena.

Berdin dio goizean ala iluntzean den, lagunekin hartzen dudan tragoa ez diezadala inork lapurtu.

Javier Zubimendiren txokorik kutunena.

Hernaniko Goiz Eguzkiko ginkgoa.

Eta kantuau aritzeko?

Sagardotegi bat.

Kantu bakarra.

Mendigaina.


Diapasoia ala pianoa?

Eraginkorra izateko pianoa, harro agertzeko diapasoia.

Publikoari bizkarra emanez zuzentzen,

ala publikoartean eserita?

Zuzentzea dut gustuko. Magikoa da ikustea nola talde osoak men egiten dieten zure eskuei. Gobernu bateko presidenteak ere ez du lortzen horren-besteko boterea izatea.



09.

IGARABA HERNANIN, ITZULERA POZGARRI BATEN KRONIKA

Iñaki Sanz-Azkue

75 urte igaro dira jada, gutxi gorabehera, Hernanin azkeneko aldiz igaraba ikusi zenetik.

Hala diote, behintzat, Ereñotzu inguruko testigantzek. Ordutik, arrastorik ez.

Desagertu egin zen, baina ahozko ondareari esker, gaurdaino iritsi dira herritarren memorian gelditutako kontakizunak eta ezagutzak. Hargatik, agian, ezustean, baina pozik jaso genuen 2021eko abenduko berria: itzuli da igaraba Hernaniko erreketara.

Mugikorrean jaso genuen bideoa (<https://www.youtube.com/watch?v=IK8J3Xo99lo>). Itsas Enara Ornitologoa elkartekoek eta Haritzalde Naturzaileen elkartekoek bidali zizkigutten irudiak. Ezin genuen sinetsi. Grabazio bat zen, Ereñotzu inguruko bailara batean egina. Bertan, putzu batean, igaraba heldu bat ikusten zen batetik bestera. Gaueko irudiak ziren eta arrantzan ari zen igaraba, edota ehizan hobeto esanda, arrainak baino, igelak zituelako helburu.

Berri ona zen, zalantza izpirik gabe. Batetik, 75 urte zirelako Ereñotzun eta Hernanin igaraba ikusten ez zela. Bestetik, ez zelako edozein tokitan filmatu: Aranzadi Zientzia Elkartea sorturiko urmael batean hartu ziren irudiak. Alegia, gizakiak sorturiko urmael artifizial batean. Igarabaren etorrerak, alabaina, atzetik ere bazuen beste irakurketarik. Izan ere, ugaztuna Hernanira bueltatu izanak Urumea ibaiaren eta Urumeako errekaileen, basoen

eta erreka ertzen kalitatea ere hobetzen ari dela aditzera ematen zuen.

Igarabari buruzko ahozko lekukotzak

Igaraba Hernanitik desagertzearrekin batera galdu ziren hari buruzko arrasto asko. Zorionez, ordea, Ereñotzu inguruan bazen, eta bada oraindik ere, umea zela igaraba ikusi eta ezagutu duenik. Izan ere, duela 75 urte arte igaraba (*Lutra lutra*) espezie ezaguna zen bertako biztanleen artean. Ezaguna izanik, izena ere bazuen. Baten faltan bi: *iyaraba* edo *ur-zakurra*. Ezagutza haren haria, beraz, ahozkotasunak eta pertsonen memoriak ekarri digu egundaino. Eta hala, herritarren ahotik jasotakoa oraindik desagertu ez den momentuan, itzuli da Hernanira igaraba, hemendik aurrera ere bertako bizilagunen ahozkotasunean hari buruzkoak hauspotzeko asmoz.





Ezagutzen zutenetako asko bailarako arrantza-leak ziren. Edota ehiztariak. Izan ere, igaraba ehi-za preziatua zen. Haren larruaren bila izaten ziren asko, abrigoa egiteko oso egokia baitzen. Ile itxi-itxia, leuna eta gozo-gozoa dute.

Ehiza bazen igarabarentzat mehatxua, baina hori bezainbestekoa izan zen ere Urumea ibaiak XX. mendean jaso zuen aldaketa. Erribera asko industria gune bihurtu ziren, eta horrek ibaiertzak suntsitu eta hultzadia zena, horma bihurtzea ekarri zuen. Hala, igarabak umatzeko gustuko zituen habitat asko desagertu ziren. Igarabak gustuko zuen izokina ere desagertu zen Urumeatik, eta guztia batuta, igarabak jasango ez zuen egoera sortu zen. Ezin da jakin zehatz-mehatz zein urtetan desagertu zen espeziea Hernanin, baina bertakoen aburuz, 1940-50 urteen artean harrapatu zen azkena Jaizkibel atzealdean, Hondarribian, eta ordurako Ereñotzu

inguruau, eta baita Urumean behera ere, desager-tua omen zegoen.

Ureko zakur igerilaria

Igerilari trebarearen fama du igarabak. Arrantzaleen artean ere ezaguna da, izan ere, bertakoek ondo asko dakite zer jaten duten igarabek: “Zer jateuen? Amorraya! Txingak (arrantza-sareak) majiñat bier txikitu zizkiaten nei hoik amorrayak jateko! Saria txikitu! Sariai zulua in galanta!”. Mustelidoen familiako ugaztun eder honek eta gizakiak, beraz, helburu bera zuten: amuarrainak arrantzatzea. Eta hala, au-retik nahiko lan bazuen, gizakia ere kontrario izan zuen arrazoi horregatik.

Lekukoen arabera, beti harri berean geratzeko ohi-tura du, eta kaka ere beti harri berean egiten du.



Txakurrak bezala "botoiak" ditu igarabak hanketan, baina txakurrak lau baditu, igarabak bost.

"Kaka beti harri batian", esan digute. Usadio horiek izanda ere, igaraba ez omen da harrapatzeko animalia erraza: "zaillak hittun hok harrapatzten. Banaka etortze hittun eta puntu jakinetan kaka plastaka bat itte zitten. Kaka, ez hola kozkorra; likidua bezela, hexur ttiki-ttikin, plaxtaka bat itteik."

Gorotzen bila ibiltzen ziren batzuk, beraz, baina hori ez zen arrasto bakarra igaraba harrapatu nahi zuenarentzat. Ereñotzu inguruau jarri zaion izenak ematen digu pista gehiago: ur-zakurra. Ureko zakurra bezalakoa delako. Ura gustuko duelako, noski, eta zakurra bezala hanketan "botoiak" dituelako. "Hankako botoyak e zakurrak baño bat geyo dizkittek. Zakurrak lau baittu, honek bost. Hoi bazan, ya, iyaraba."

Igerilari aparta da igaraba. Gorputza ere hala du diseinatua, ur azpian, arrantzan, azkar mugitzeko. Gorputz malgua, arina eta mugimendu azkarrekoa. Aurreko hankak palmatuak ditu, eta isats lodi eta indartsua, ura astindu eta abiadura lortzeko, bai eta norabide aldaketetan gorputza laguntzeko ere. Mutturiko bibote itxurako ileek harrapakinak detek-

tatzen laguntzen omen diote, eta hala, uherturiko ur ilunean ere arrainak jarraitzen gai da. Ur azpitik, sarri, denbora luzez irauteko gaitasuna baitu.

Bideoak gordetzen duen sekretua...

2021eko abenduan ateratako bideoa urmael batean dago grabatua, Aiako Harriko Parke Naturalen, Urumea ibaitik ez oso urrun. Arrestian esan den moduan, Aranzadi Zientzia Elkarteak Ereñotzu inguruau egindako proiektu batean sorturiko putzuan, erreka baten aldameneko ur geldoko eremu batean, beraz. Hasiera batean, igarabek ibai eta errekekiko duten afizioa dela eta, bazirudien irudiko animaliaren jokaera ez zela oso ohikoa, baina irakurketa baten ostean, ondorio zentzudunak atera daitezke.

2021eko udazkenean, euriteek eraginda, Urumea bailarako errekaisten ur-emaria asko igo zen. Ur asko zeramaten, eta era berean, urak uhertuta jaiseten ziren, txokolate kolorearekin. Baldintza horietan,



Igerilari ona da igaraba.

igarabaren arrantza zaildu egiten da. Testuinguru horretan arrainak harrapatzea ez da egiteko erraza, eta beraz, ugaztunak beste bide batetik hartu behar zuen jatena. Hala, segituan konturatuko zen, urmalean ere izango zuela zer jan.

Bideoan ondo erreparatz gero, igaraba putzuaren ertzean muturra sartu nahian ikusten da. Behin eta berriz uraren azalean zerbaiten bila ibilikoi balitz bezala. Arrainik ez zen putzuan, noski, baina bertako anfibioak ezagutzen dituen edozeinek segituan asmatuko luke zertan ari den negu betean igaraba ur geldotan, belar artean muturra sartzen. Izan ere, urritik hasi eta abendu-urtarrilla aldera arte, Ereñotzu inguruko bailaretan baso-igel gorriak (*Rana temporaria*), Hernanin *ingela gorriya* moduan ezagutzen direnak, basoetatik putzuetara joaten dira ugaltzera. Nahiko logikoa dirudi pentsatzea, arrantzatzeko zailtasunak zituzenez, igarabak igelez beteriko putzura joateko hautua egin zuela, eta bertan, horiek harrapatzeko ahaleginetan hartu zuela kamerak. Bainan ezin da alde batzera utzi ere, ur-emari handia izan ala ez, igarabak igelak jateko

aukera ikusi izana, eta beste arrazoirik gabe, putzura gerturatu izana ehizatzen.

Baina behin sekretuak kontatzen hasita...

Sekretuak sekretu, ordea, esan beharra dugu pertsona gutxi batzuk jada bagenekeela inguru harten igaraba zebilela. Aurretik esana ziguten Artikutza inguruan ikusia zutela heldu bat hilabete batzuk lehenago. Berri pozgarriena, ordea, uda amaieran eterri zitzagun herniarro. Ereñotzu inguruan, ibaiaren ertzean igarabaren oinatzak agertu ziren legarrean. Alegia, irudirik ez, baina garai bateko ehiztari herniarrek bezala, guk ere aztarna aurkitu genuen. Igaraba Hernanira bueltatu zen. Bideoak, alabaina, arrastoak baiezta zituen, eta berri ona zena, hobea bihurtu. Igaraba itzuli zen, eta bertan jarraitzen zuen.

Hori gutxi ez eta, urtarrilaren 1ean Aranotik beste bideo bat jaso genuen. Bi igaraba ikusi zituzten inguru haietako erreka baten aldamenean, baso

misto batean. Azken berri honek ez zuen horren deigarria ematen, izan ere, aurretik ere jakina bai- tzen Nafarroako mugatik gertu ugaztun hau ibil- tzen zela, baina Artikutzakoa aipuak, Ereñotzuko biek eta Aranokoak, lauek igarabaren itzulera gel- ditzeko asmoarekin zela sendotzen zuten. Berri ona zen zalantzak gabe.

Igarabaren presentzia, ziur asko, ez zetorren ka- sualitatez. Izan ere, azken urteetan Urumea ibaia- ren ur-kalitatea asko hobetu da, basoen azalera ere handitu da eta basopea ere sortu. Horrez gain, aurretik esan den moduan, bertako bailaretan ur- maelak sortu izanak hainbat espezierri mesede egin dio, eta kasu honetan ikusi den moduan, igarabari berari momentu txar batean elikagaia aurkitzen ere lagundu dio, inguru horietan bere biziraupena pos- sible eginez. Igaraba Euskal Herrian galtzeko arris- kuan dagoen espeziea izanik, pozteko berria da, zalantza izpirik gabe.

Datuetan lupa jarriaz

SECEMek (Sociedad Española para la Conserva- ción y Estudio de los Mamíferos) ateratako datuen arabera, 1985ean igaraba Euskal Autonomía Erki- degoan, Araban soilik aurki zitekeen. Bizkaian eta Gipuzkoan ez zegoen alerik, nahiz eta Bidasoa inguruan aipu bat zegoen Nafarroako aldean. 1992ko mapan ikus daitekeenez, egoerak txarrera egin zuen, eta Araban datuak okertzera egiteaz gain, Bizkaian eta Gipuzkoan ere ez ziren asko hobetu. Hernanin, alabaina, Kartola eta Sagarreta bailara inguruan, Leitzaran bailararekin eta Aranorekin mugan, arrastoak aurkitu ziren. Ereñotzu inguruan eta ur behera, gauzak modu berean jarraitzen zuen. Aztarnarik ez.

2021ean SECEMek berak egindako ikerketa batean, Iberiar Penintsula osoan Gipuzkoa da igarabaren

aztarna gutxien aurkitu den guneetako bat. Euskal Autonomía Erkidegoan eta Nafarroan egoerak ho- bera egin du, eta datuek ere hala diote: 1984-86 urteen artean aurreneko laginketak egin zirene- tik, aurkituriko guneen kopurua hiru aldiz igo da 2018an.

Duela urte gutxi hasi ginen entzuten igaraba berriz ere Urumean ikusteko aukera izan genezakeela, eta datuek ere hala diote. Izan ere, ibaien, erreken eta basoen kontserbazio egoera hobetzen doan errit- mo berean joan da berreskuratzen igaraba aurretik galdurik eremua. Orain Hernani ingurura ere iri- tsi da, baina, azken sekretu bat kontatzen hasita... jakin beharko zenukete Maialen Lujanbiok jada esana zizuela igaraba itzuliko zela. Ikusi bestela, jarraian kontatuko dizuedana.

Igaraba kirolegiko igerilekuan

*Burua uretik atera
ta ur-txakurraren tankera.
